

62

500 pezeta / 20 libera • 2001eko AZAROA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: HERIOTZA HEZKUNTZAN  
• ESPERIENTZIA: EUSKARAZ  
MINTZA • INFORMATIKA • THE  
BEATLES • MIKELETE POSTUETA-  
KO ESKOLAK



ELKARRIZKETA

Marta Mata

Haurren hezkuntza eskubidea





8

gaia

## MARIA ANTONIA PLAXATS

Hilariak biribilketan proiektua, horri lotutako Santo Tomas lizeko esperientzia pilotua eta Maria Antonia Plaxats-ek heriotza, galera eta doluaren inguruan dicena bildu ditugu gaian.



16

elkarrizketa

## MARTA MATA

Haurraren Hezkuntzarako Eskubidea du ardatz elkarrizketa honek.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## HERIOTZA HEZIKETAN

Hilariak biribilketan

San Telmo museoa, Aitziber Aiesta eta Maria Antonia Plaxats

16 elkarrizketa

## MARTA MATA

22 esperientzia

## Haurrak eta euskarazko jolasak

Sortzen-lkasbatuazen "Euskaraz Mintza" proiektua

26 informatika

## Irakatsi aurretik, ikasi egin behar da

Edune Larraza

30 ekarpena

## The Beatles

Rcok & Orff-en CD-ROM berria

33 berriak

36 argitalpenak

40 eskolako zertzeladak historian

## Mikelete postuetako eskolak

Joxe Fernando Garmendia

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estanba, Arantxa Goiburua, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Marta Mata (Ikor Kotx).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001 /X/26 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# hik hasik

## euskal hezitzaileen harpidetza behar du



30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea  
ezinbestekoa zaigu

# harpide zaitetz!

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale  
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. Deitura .....Tel.:.....

Helbidea .....Posta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA  
SARIAK**  
(BEZ barne)

**30 euro**

Hego Euskal Herria  
5.000 pezeta  
Ipar Euskal Herria  
200 libera

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

# editoriala

## azaroa

### Haurrek hezkuntzarako duten esku- bidea bermatu egin behar da



Haur Hezkuntzak garapen azkarra izan du Euskal Herrian. Gerora ere, bidea jorratu egin behar da garapen horrek aurrera egin dezan.

0-3 urte bitarteko Haurren Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Mahaia osatu da.

Haur Hezkuntzak garapen azkarra izan du Euskal Herrian. 60ko hamarkadan, sei urterekin eskolatzen bazen, ikastolen sorrerarekin batera 3 urterekin eskolatzen hasi zen. Ideia hau 70eko hamarkadan hedatuz joan zen eta 80koan orokortu.

Aldi berean, 0 eta 3 urte bitarteko haurrek zuten hezkuntza hutsunea hainbat ekimenen bidez betetzen joan zen.

Adituek diotenez, adin tarte horretan hasten da gizakiaren oinarriko garapena finkatzen. Horregatik, eredu egokiak eta langile prestatuak behar dira lan hori betetzeko.

1990eko LOGSE Legearekin Hego Euskal Herriko hezkuntza egoera juridikoa aldatu egin zen. Euskal Herrirako

egokitutako legea ez bazen ere, ordura arte egiten ari ziren hainbat heziketa ahaleginei babes eskaini zien, haurrek jaiotzetik duten heziketa eskubideari Hezkuntza Sistemari leku eginez. Eta badirudi, orain, babes hori zalantzan jarri nahi dela EAEn. Ez dugu LOGSE Legeak ematen duen babes horretan gelditu nahi, euskal hezkuntzak bere lege propioa eduki behar baitu. Eta lege horrek, dudarik gabe, haur horien hezkuntza eskubidea bermatu beharko du.

Hik hasik bere sorreran finkatu zuen oinarri programatikoa, iadanik duela zazpi ikasturte, proiektuaren ildoak zehaztu zituen eta adin honetako haurren hezkuntza ere hor kokatzen dugu. Ildo horien artean "Euskal Herriaren izaera, nortasuna eta kultur berezitasunak garatzea azpimarratzen zuen. Hau da, euskal kulturaren oinarritutako curriculum propioa, irakasle-

ria iraunkor eta euskalduna, Euskal Herrietik kanpo hartutako erabakien menpe ez dagoen eredu dezentralizatua, zentrozen autonomia eta eraikitzen ari den herri bati irakaskuntzarako zor zaion finantzazio publikoaren igoera nabarmena. Hau guztia bideratzeak berma lezake kalitatezko euskal irakaskuntzarako herritarrok dugun eskubidea."

Betiere, planteamendu honetan hezkuntza ez unibertsitarioa hartzen zen kontuan, hau da, 0-18 urte bitarteko hezkuntza.

Eremu horretan finkaturik, beraz, hik hasik bat egiten du Mahaitik plaza-  
ratzen ari den aldarrikapen nagusiarekin: Haur Hezkuntzak izan dezala dagokion hezkuntza tratamendua, haurrak hezkuntzarako duen eskubidea egon daitezkeen beste interesen aurretik jarritz.

# kronika

*Madriren Unibertsitate Lege berria onartu den bitartean, Nafarroan unibertsitateari eragiten dion beste ekimen bat atzera bota da. PSNk unibertsitate ikasketak Tuteran ezartzeko egindako proposamena ez du ondo ikusi ez UPNk eta ezta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere. PSNk legea aldatzeko Parlamentuan sartu zuen proposamenak Tuteran hiru unibertsitate eskola sortzea proposatzen zuen: Eskola Politeknikoa, Osasun Eskola eta Ikus-entzunezkoen Eskola. Halaber, hiru urte baino lehenago campusera zortzi ikasketa eramatea planteatzen du. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ez da ondo ikusten proposamen hori, ez baitira ikasketak barreiatzearen aldekoak. Gobernua, bestalde, trasladoak ekarriko lituzkeen gastuen beldur da. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako lehendakariak sozialistek eramandako prozedura kritikatu du. Izan ere, Unibertsitate Erreformatarako legeak dioenez ekimena Gizarte Kontseiluak abiatu behar du. Honek iazko udaberrian ekin zion Erriberara ikasketak eramateko asmoa aztertzeari, baina oraindik ez du txostenik ezagutarazi..*



## Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren zereginak hemen eta Europan

Hilaren hasieran Angeles Iztueta Hezkuntza sailburuak egindako agerraldi parlamentarioan legealdi honetako jomugak zein ziren ezagutzera eman zuen.

Horietako bat Lan Eskaintza Publikoa egitea izango da. Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuorde Koldo Arrese arduratuko da prozesu horretaz. Horrela, sindikatuarekin bilerak egin ostean, azaroan Alorreko Mahaiaren egitea espero du Hezkuntza Sailak. Dena dela, nahiko arazo izango dira Lan Eskaintza urte honetan egiteko. Izan ere, prozesuak dituen epe administratiboak oso luzeak dira.

Iztueta aipatutako beste jomugetako bat eskola itun berria egitearena da. Talde parlamentarioei elkarlana eskatu die Eskola Itun berria egiteko garaian.

0-3 urteko haurren hezkuntza zikloari dagokionez, "ikuspegizabalez" jokatuko duela aditzera eman du, "hezkun-

tza eta zaintza arloak biak hartuta".

Lanbide Heziketari garrantzi handia ematen dio, eta horren isla da sortu duten Lanbide Heziketa bultzatzeko sailburuordetza. Lanbide Heziketa nahiz Etengabeko Ikasketari buruzko Liburu Zuria taxutzeko asmoa agertu du.

Beka politika ere aldatu egingo da. Horrela, sistema berria progresiboa izango da eta aintzat hartuko du familia tipoa.

Unibertsitate Legeari dagokionez, adostasunean oinarritutako legedi propioa egin behar dela aipatu du.

Jomuga horiek betetzeaz gain, Angeles Iztueta beste zeregin batzuk izango ditu Hezkuntza Iraunkorrekiko Europako Udal eta Eskualde Agintarien Elkartearen (EARLALL). Elkarte hau EAEk, Balear Uharteek, Danimarkak, Letoniak, Suediak, Norvegiak eta Italiako eskualdeek osatzen dute. Angeles Iztueta elkartearen lehendakariorde izendatu dute.

Elkartearen helburu estrategikoa Europako biztanleriaren zahartzea eta lan merkatuaren etengabeko aldaketen inguruan, hezkuntza eta prestaketa iraunkorra jorratzea da. Xede horri begira, elkarteak elkarlan ekimen bateratuak eta proiektu komunitarioak garatu nahi ditu hezkuntza iraunkorraren alorrean.

Horretarako, Europako instituzioekin eta nazioarteko erakundeekin egingo du lan. "Instituzio mailen arteko elkarlana ezinbestekoa da alor honetan arrakasta izateko" Iztueta hitzetan. "Izan ere, hezkuntza oinarritik landu behar da, udalerrri, eskualde, probintzia eta udal mailetatik".

Profesionalizazioa denok nahi genuen eta iritsi gara, baina horrek ez du esan nahi militante izateari utzi behar diogunik

Ramon Saizarbitoria



## Ikasle ezinduei laguntzeko plana EHUn

Euskal Herriko Unibertsitateak Unibertsitari ezinduak EHUn integrazteko plana onartu du. Datorren bikasturteetan garatuko den plan honek hamar neurri proposatzen ditu, guztiak ere hiru helburu lortzera bidean: aukera berdintasuna bermatzea, guztiontzako unibertsitatea eraikitzea eta ezinduen integrazioari buruzko gizarte eztabaida sustatzea.

Aipatu hamar neurri horietako batzuk honakoak dira: curriculumak ikasle ezinduen ezaugarrietara egokitzzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea; ikasle ezinduen enplegatzea bultzatzea eta unibertsitateko komunitatea gai honetaz sensibilizatzea.

Horrez gain, ezinduei laguntzen dieten boluntarioei aukera libreko kredituak emango dizkiete.

Beste zentro batzuetan horrelako ekimenak aurrera eramán izan dira, baina ez dute arrakasta handirik izan. Hala ere, EHUko ordezkariak baikor ageri dira plan honekin.

Halaber, unibertsitateko ikasle ezinduen kopuruak gora egin duela aipatu dute. Iaz 54 ikasle ezinduk ikasi zuten EHUn: horietatik 34k mugitzeko ezintasunen bat edo beste zuten, 12k ikusteko arazoak, bostek entzutekoak, eta beste hiruk bestelako ezintasunak.

Hurrengo urteetan kopuru horiek igo egingo direla aditzera eman dute. Arrazoiak ikasle ezinduak eskolatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 80ko hamarkadan indarrean jarritako integrazio politika da. Egitasmo haren ondorioz, hogeitaz urtean derrigorrezko hezkuntzan hezi diren ikasle ezinduak unibertsitatean matrikulatzen hasi baitira.

Bestalde, beste zenbait ekimen ez daude hain ongi eta "koordinatuta" EHUn. Arkitekturako ikasleak protestaldiak egin dituzte 3. mailatik aurrera euskarazko irakasleak falta zaizkielata. Gipuzkoako errektoreordeak eta Euskara errektoreordeak arazoa deskoordinazio baten ondorioa izan dela adierazi dute, irakasleak kontratatatu gabe egin dutelako euskarazko ikasgaien eskaintza.

*Jauzi bat euskararen alde* kanpaina abiatu du Baionako Bernat Etxepare lizeoak pairatzen dituzten gabeziei aurre egiteko. Lizeoak hiru sail nagusitan ditu arazoak: liburutegian, fisika-kimikako laborategian eta informatika sarearen osaketan. Egindako kalkuluen arabera, liburutegia hornitzeko 120.000 libera (3 milioi pezeta) beharko dituzte, 280.000 libera (7 milioi pezeta) fisika eta kimikako laborategia hornitzeko, eta 100.000 libera (2,5 milioi pezeta) informatika sarea osatzeko.

Hezkuntza Ministerioak esaten du Baxoa gainditzeko zein eduki irakatsi behar diren eta zein praktika burutu behar diren. Horrela, gazte bakoitzak mikroskopio bat behar duela esaten du, eta lizeoan bost dituzte 11 ikaslerentzat. Gainera, ez dira egokiak, polarizatuak behar baitira, eta haienak ez baitira horrelakoak. Ondorioz, ikasleek ezin dute esperimenterik egin eta Baxoko alde praktikoa bete ezinik gelditzen dira.

Egoerari aurre egiteko, *Jauzi bat euskararen alde* kanpaina jarri dute abian. *Jauzi* edo bono bakoitza 10 eurotan salduko da. Horrekin batera urtarrila bitartean hainbat ekitaldi antolatu dira.

Hazparneko ikastolak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu bere 30. urteurrena ospatzeko. Ikastola 1972an ireki zen 13 haurrekin, eta gaur egun 107 ikasle ditu, eta beste 51 haur ama eskolan. Langileak, berriz, 11 dira guztira. Haurren erdia baino gehiago Hazparnekoa da, eta gainontzekoak inguruko herrietakoak.


Ikasle kopurua urte hauetan guztietan igoz joan bada ere, beste zenbait arazo oraindik konpontzeke daude.

Eraikuntzarena da arazorik nagusia. Txikienez zako eraikuntza sendoa daukate, kantina gisa ere erabiltzen dena. Baina gainerako ikasleak prefabrikatuetan daude. Herri elkargoak lur eremu bat erosi du ikastolaren atzean, eta orain hainbat agintarirekin negoziatzen ari dira eraikuntzaren arazoiari irtenbide bat emateko.



# Heriotza heziketan

## Hi larriak biribilketan







## Hilarriak biribilketan proiektua

Donostiako San Telmo museoan Hilarriak biribilketan proiektua burutzen ari dira. Euskal Herriko eta europar atlantiarreko aberastasun historiko eta kulturalaren berri ematea du xede, museoetan eta herrietan zehar dauden hilerriak oinarritzat harturik. Hilarriak, heriotza, chiturrak eta beste hainbat elementu ukitzen ditu. Proiektua Europar Batzordeko Kultura 2000 programaren barruan aukeratutako bat da.

Hilarriak eta horren inguruko alderdiak ezagutzeak heriotzaren gaian sartzeko aukera ematen du. Bide horretan abiatzeko lagungarri da oso San Telmo museoak prestatu duen maleta didaktikoa. Donostiako Santo Tomas lizeoan dagoneko erabili dute.

“Hilarriak biribilketan” Europako Kultura 2000 programaren barruan aukeratutako proiektuetako bat da. Kultura 2000 Europako Komunitatearen programa bat da eta kultur lankidetzak sustatzen duten proiektuei diru laguntzak ematera bideratua dago. Programaren helburua Europako herrialdeen kultura eta historia ezagutaraztea da, eta horretarako, jendeari bitarteko-ak eskaintzea. Ildo horretan, 1.023 proiektu aurkeztu ziren 2000. urteko deialdian. Horietatik 219 aukeratu zituen aditu taldeak, bi Euskal Herrikoak izanik: Bilboko Guggenheim museokoa bata eta Donostiako San Telmo museokoa bestea.

Bigarren horrek aurkeztutako proiektua da “Hilarriak biribilketan”. Dena dela, gidaritzan San Telmo daraman arren, beste bi museoekin batera ari dira burutzen: Baionako Euskal museoa eta Lamegoko museoa (Portugal). Horiez gain, Euskal Herriko, Frantziako eta Portugaleko beste 12 museoek ere parte hartzen dute eta beste hainbat laguntzaile ere badituzte.

Museoko teknikari Miren Akordagoitiak adierazi digunez “jende asko ari da parte hartzen eta proiektuaz zabalkunde handia izaten ari da. Azken finean, hori da helburua: hilarrien gaiaren inguruko ezagutza eta ondarearen berri ahalik eta gehien zabaltzea”.

Europar Komunitateko proiektu batean parte-hartzeak garrantzi handia duela dio Akordagoitiak. “Europako onarpenera izateak erakusten du Europako kulturgintzan borondatezko lankide garelako eta berritzaileak garelako. Berritzaileak bi zentzutan: batetik, Batzordeak etorkizunean baliagarriak eta beste lekuetarako balio duten proiektuak baino ez dituelako hautatzen; eta bestetik, kudeaketa abangoardista duelako”.

“Hilarriak biribilketan” proiektuak hiru helburu edo lehentasun nagusi ditu. Lehenik eta behin, gizartea, gazteak eta ikasleak europar ondasun historiko eta kulturalaz jabeaztea. Bigarrenik, orain arte gutxi baloratu eta ezagutarazi den ondaren berri ematea modu didaktiko eta interaktiboan. Eta hirugarrenik, museo eta ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzea.

Proiektua aurtan maiatzaren jarri zen

martxan eta azaroaren bukaeran amaituko da. Bitarte horretan hainbat ekintza eta aktibitate eraman dira aurrera, bai museoetan eta bai eskoletan.

Alde batetik, ikus-entzunezko hainbat material sortu dira; eta bestetik, “Ateak zabalik” izeneko jardunaldiak burutzen ari dira proiektuan partaide diren museo guztietan. Jardunaldi horietan tailerrak, erakusketak, hitzaldiak, olerki emanaldiak, kantaldiak eta abar egiten ari dira.

Horrez gain, hilarriek duten balio kulturala eta ondarea ezagutarazteko **maleta didaktiko** bat prestatu dute. Maleta hori ikastetxerik eskainiko zaie aurrerantz, gai hau landu nahi dutenek bitarteko bat izan dezaten.

Akordagoitia San Telmo teknikaria izan da maletaren egileetako bat. Berak azaldu digunez, “maleta hilarrien eta heriotzaren gaia lantzeko prestatu dugu, batez ere 10-12 urteko neska-mutilei zuzendua, eta bost modulu tematiko ditu”.

### 1. modulua: sarrera

Hasieran gaiaren sarrera egiten da eta horretarako hainbat material daude:

- 1. bideoa: honen bitartez gerturapen espaziala egiten da, hots, hilerriak non dauden, hilerria zer den, museoetako hilerriak, Iparaldeko hilerri-lorategiak eta abar esplikatzeko da.

- Esploraziorako kit-a: kanpoko behaketa lana egiteko materiala biltzen da: erregea, iparrorratza...

- 2. bideoa: Manu Gomezek laburmetraia batek heriotzaren gaia era poetikoan lantzen du. Hemen gaia emozionalki lantzeko aprobetxatu nahi da, hausnarketa bideratzeko balio dezakeelarik.



“Ateak zabalik” jardunaldien aurkezpena San Telmo museoan.

# G

## 2. modulua: testuingurua

Planoa eta CD-ROMa: proiektua Europar Komunitateko diru laguntza batek finantzatzeko duenez, Europako ardatz atlantiarreko hilerriak ditu aztergai. Beraz, hilerri horien kokapena biltzen da planoan eta CD-ROMean; alde batetik hilerriak dituzten museoak non dauden, eta bestetik museotatik at dauden hilerriak.

## 3. modulua: materialaren azterketa

Hilarriak hainbat materialekin eginak daude. Normalean, herrialde bakoitzeko geografia-orografia baldintzen arabera, bat edo bestea erabiltzen da. Ohikoenak kareharria, harea, granitoa, marmola eta gaur egungo hormigoia dira. Modulu honetan hilarrien egitura, kolorea, lanketa... eta abar aztertzen dira, eta herrialdeen artean dauden desberdintasuna ere bai.

## 4. modulua: hilarrien lanketa

Modulu honetan bideo bat dago eta hilarriak nola egiten ziren agertzen da artisau batek jarraitzen duen prozesuaren bitartez. Lanketa bera ikusteaz gain, zein tresna erabiltzen diren ere erakusten da.

## 5. modulua: ikonografia

Ikonografia aldetik izugarritzko aniztasuna dago eta hori agerian jartzea du helburu modulu honek: animalien irudiak, gurutzeak, izar moduko irudiak, lanbideen erreferentziak...

Material horren osagarri modura olerkiak eta ipuinak ere erabil daitezke. Heriotzaren gaiarekin lotutako poemak eta ipuinak hausnarketa egiteko egokiak izan daitezke.

Guztira 12 maleta egin dira. Horietatik hiru Portugaleko Lamegoko museoan egongo dira eta gainontzekoak Euskal Herrikoetan. Baionako Euskal Museoan lau egonen dira eta gainontzekoetan bana: Donostiako San Telmo museoan, Gernikako Euskal Herria museoan, Eskoriatzako museo eskolan, Bilboko Etnografia, Arkeologia eta Kondaira museoan, Enkanterrietako museoan, Iruñeko Museo de Navarra eta Julio Caro Baroja museoetan, Arabako Elizbarrutiko museoan eta Arabako Arkeologia museoan. Horrenbestez, gai hau landu nahi duen edonork museo hauetara jo dezake eta maleta maileguan hartzeko aukera izanen du.



# Aitziber Aiesta: Uste dut gehiengoari pentsakera aldatu egingo zaiola

San Telmo museoko arduradunak maleta didaktikoaren eskaintza egin aurretik, esperientzia pilotu bat burutu nahi zuten. Akordagitiak hala dio: maleta egiten jardun garen denbora berean Donostiako Santo Tomas lizeoan landu dute. Horrek asko lagundu digu maleta egoki prestatzen.

Akordagitiak Santo Tomas lizeoko Aitziber Aiesta irakasleari luzatu zion proiektu pilotua aurrera erateko proposamena. Baiezkoaren ondoren, Aitziberrek 6. mailako lau gelatan landu du, *Ingurunea* ikasgaiari.

## Zerk bultzata animatu zinen proiektu pilotu hau gidatzera?

Askok gustatzen zait horrelako proiektuetan parte hartzea, ikasleen inplikazioa askoz ere handiagoa izaten delako eta beste hainbat alderditatik begiratuta ere egokiak direlako.

Gaia zertan zen ikusi nuenean interes handia sortu zitzaidan. Heriotza bete-betean harrezakeela ikusi nuen. Gizarte honetan ez da batere hitz egiten heriotzaz, ez daukagu ohiturarik, eta bakoitzak bere modura eramaten du. Ikasle askok horren inguruan hitz egiteko gogoia eta beharra izaten dutela ikusi nuen, eta gogo handiz heldu nion gaiari.

Berez DBHko ikasleentzat prestatuta zegoen, baina 6. mailako ikasleen irakaslea naizenez, maila horretara egokitu dut. Horrela, 6. mailako lau gelatan landu dugu.

## Ingurunea da zuk irakasten duzun ikasgai. Nola uztartu dituzu Ingurunea eta heriotza eta hilarriak?

Heriotzaren gaia naturarekin oso lotuta zegoela ikusi nuen. Hortaz, heriotza bizitzaren jarraipen bezala lotu dut eta horrela azaldu diet. Gorputza lurretik sortzen dela eta lurrera doala kontatzen diet, hau da, gure gorputza lurrera itzultzen dela eta eraldatu egiten dela. Zientzialari guztiek dioten bezala, ezer ez da desagertzen edo hiltzen, eraldatu baizik. Triste ez gelditzeko, esaten diet gure gorputzaren gehiena uretara doala, ur hori itsasora doala, han lurrundu egiten dela eta laino bihurtu, gero hoztu eta euri bilakatzen dela, eta euria egiten duenean errekarra eta berriro itsasora joaten dela. Han berriro lurrundu egiten da. Beraz, amaierarik ez dagoela ikusarazten diet, dena jarraipen bat dela.

## Proiektua zure ikasleen adinera egokitu zenuela aipatu duzu. Nola hasi zinen gaia lantzen?

Hasieran heriotzaren inguruan hitz



# GATA

## Heriotza heziketan

### Hilarrak biribilketan



egin genuen: beraiek nola ikusten zuten heriotza, inguruan zer entzuten zuten edo nola kontatu zitzairen, heriotzaren ondoren zer dagoen, bakoitzaren sinesmak, zer pentsatzen duten, zer sentitzen duten...

Interesgarria izan zen oso. Sentipenen inguruan asko hitz egin genuen. Nahiz eta oraindik oso helduak ez izan eta 11 urte baino ez eduki, puntu batzuetan gauza interesgarriak lortu ziren. Adibidez, negargurea sentitzen zutela esaten zuten eta zergatik galdetzen nien, ea hildakoagatik edo beraiengatik sentitzen zuten negargurea. Hildakoa faltan botatzen zutelako pena sentitzen zutelako konturatu ziren. Era berean, hildakoa beste bizitza batean egongo zela esaten zuten, edo arima hor egongo zela, eta zoriontsuagoa izango zela. Orduan, galdetzen nien, "zoriontsuago dela uste baduzue, zergatik sentitzen duzue pena? Maite baditugu beraientzat hoberena nahi dugu, ezta?" Eta konturatu ziren beraiengatik sentitzen zutela pena.

Gero, hitz egindako guztia idazlan edo poema modura transkribatu zuten. Bukaeran, lan guztia bukatu ondoren, berriz ere idazteko eskatuko diet, ezberdintasuna ikusteko. Uste dut gehiengoari pentsakera aldatu egingo zaiola.

**Hori al da lortu nahi duzuna, hots, heriotzari buruzko pentsakera aldatzea?**

Bai, nire helburuetako bat heriotzaren alderdi ezkor edo negatibo hori pixkat kentzea da. Ez da erraza, gizartea eta ohiturak hor daudelako. Baina beste zentzu bat ematen saiatzen ari gara.

#### Nola jarraitu zenuten ondoren?


Irteera bat egin genuen Eskoriatzako Apozaga auzoko hilerria. 40 urte besterik ez ditu, baina bertako apaizak lehengo hilerrien modura egin zuen. 20 hilari daude biribilean jarrita eta lorategi bat dirudi.

Irteeraren helburua informazioa jasotzea zen. Aldez aurretik nik ez nien inolako informaziorik eman. Bakoitzak hilari bat hautatu eta hari buruzko informazioa jaso zuen fitxa batean: neurriak, zer informazio zeukan, zer irudi eta abar.

Handik Eskoriatzako museora joan ginen eta hango arduradunak prestatu zigun tailerrean heriotzaz eta Euskal Herriko sinesmez mintzatu ginen.

#### Zer egin zenuten irteeraren ondoren?

Eskoriatzatik ekarri zuten informa-



zioa gehitzea zen nire asmoa, baina ez betiko roiloa sartuz. Horregatik, kondaira bat kontatuz hasi nintzen, eta horren bitartez eman diet informazioa. Gehiago gustatzen zait gaia horrela ematea, badakidalako horrela ez zaiela ahaztuko. Bestela, historia huts-hutsetik kontatzen hastea oso zaila da adin horretan.

Horrela bada, historiaurrean lurperatzen zergatik hasi ziren azaltzeko, kondaira bat kontatu nien.

Horrekin batera, grafikoak erabili ditugu eboluzio osoa nola izan den garbi ikusteko: historiaurreko zutarriak, trikuharriak, harrespilak, historian harrespilei hilarri forma ematen nola hasi ziren, hilarri horiek zituzten lehengo jainkoen irudiak, irudiez gain etxe edo baserriko izena eta lanbide tresna nola agertzen ziren, kristautasuna iritsi zenean nola galdu ziren euskaldunen sinesmen horiek, trantsizio garaian lehengo sinesmei lotutako irudiak eta kristautasunari lotutakoak nola agertzen ziren, eta bukaeran, gure hilerri modernoetara iritsiz, gurutzeak eta marmolezkoa hilerriak.

### **Informazio hori guztia jaso ondoren, zein izan zen eman zenuten hurrengo urratsa?**

Maleta didaktikoan agertzen ziren fitxak egiten hasi gara. Garaiko politika, ekonomia, gizartea... lantzeko fitxak dira. Nik informazio gehiago eman ondoren, marrazkiak eginez landuko dituzte fitxak eta eduki horiek. Guztira hiruzpalau fitxa egingo dituzte. Bakoitzak hilarri bati buruzko informazioa jaso zuen Eskoriatzan eta hori aztertuko dute. Hiztegitxo bat emango zaie hilarriko irudiek zer esanahi duten jakin dezaten. Beraz, beraiek egingo dute azterketa lan osoa eta sormen lana.

Bukatzeko, hasieran bezala, idazlan edo poema bat egingo dute. Eta azkenik, egindako lan guztiarekin erakusketa bat jarriko da ikusgai San Telmo museoan.

**Ingurunea ikasgai landu duzue eta lantzen ari zarete proiektua.**

### **Beste ikasgaietan gaiari lotutako zerbait egin al da?**

Plastikan bai, bakoitzak bere hilarriaren maketa egin du, eta denon artean hilerri osoa osatu dugu. Baina beste ikasgaietan ez. Politena ikasgai guztietara zabaltzea izango litzateke: euskara, plastika, musika... baina zaila da. Gaur egun irakasle guztiok lanez gainezka gaude eta horrelako proiektu baten inplikazio handia eskatzen du. Arazoa denbora falta izaten da.

### **Dena dela, zuk ekin diozu, prest agertu zinen eta gustura aritu zara. Merezki al du ahaleginak?**

Noski baietz. Nik ere asko ikasi dut. Irakaslearentzat ere motibagarria da horrelako lan bat burutzea. Niri izugarri gustatzen zait. Informazioa biltzeko garaian, batzuetan ikasleei beraiei eskatzen diet. Argazkiak eta gauza gehiago ekartzen dituzte eta horiek erabiltzen ditugu. Nik ez dut dena egin eta prest izaten. Beraiei esaten diedan bezala, nik orientatu eta lagundu besterik ez diet egiten, gaia denon artean eraikitzen dugu. Beraien esperientziatik abiatzen gara. Eta hortik aurrera beti ez dut metodologia bera erabiltzen: batzuetan beraiek jartzen ditut irakasle bezala klasea ematen, bestetan kondairak erabiltzen ditut, bideoak tarteka, grafikoak, gardenkiak... eta sortzen zaizkidan gauza berriak.

### **Ikasleentzat zein onura ikusten dizkiozu horrela lan egiteko moduari?**

Horrela lan egiteak zentzua hartzen du, inplikazioa handiagoa da eta gehiago ikasten dute. Beraien inizatibei leku egitea oso garrantzitsua da.

Lan honetan oso-oso gustura aritu dira. Hasieran harrিতuta galdetzen zuten: heriotza? Hilerriak? Zer da hau? Irteera egiteak asko lagundu zuen. Hilerria asko gustatu zitzairen eta museoko kontakizunak ere berehala lotu zituen. Gelatik irten, biribilean jarri eta hitz egitea ere asko gustatu zaie. Etxetik ere informazio asko ekarri dute. Izugarri inplikatu dira.

Horrez gain, taldean lan egitean gauza asko ikasten dituzte: gizarte arauak, beraien arteko arauak, errespetua, sozializazioa, laguntasuna... 11 urterekin askok ez dakite taldean lan egiten eta hori ikastea oso garrantzitsua da.

### **Horrelako proiektuak lantzeak merezi du, orduan?**

Bai, dudarik gabe. Baina proiektua bera baino garrantzitsuagoa da metodologia. Proiektua, edo kasu honetan maleta didaktikoa, munduko politena izan daiteke, baina irakasleak erabiliko duen metodologia da benetan funtsezkoena. Lan egiteko modua da azkenean balio duena.







# Maria Antonia Plaxats:

## Gizarte moderno honetan emozioetan analifabetoak gara

Psikoterapeuta katalan honek Hik Hasiren II. Topaketa Pedagogikoetan parte hartu zuen, Heriotza heziketan. Egungo tabua? izeneko ikastaroan, hain zuzen ere.

1988an galera garrantzitsuen aurreko doluaren gaia lantzen hasi zen eta geroztik esperientzia eta lan ugari burut ditu eskoletan, ikasleekin, irakasleekin, jardunaldietan 1995ean bera bezala gai hau lantzen ari ziren Joan-Carles Melich eta Concepci Poch-ekin estatu mailan lehenengoa izan zen ikastaroa diseinatu zuen:

Bizitzarako hezi: heriotzarako hezi. Bartzelonako Rosa Sensat Udako Ikastaroetan aurkeztu zuten eta geroztik udako, udazkeneko nahiz neguko ikastaroetan aritu dira ikastaroa ematen.

Ikastaroaren helburu orokorra gure gizartean, eta ondorioz gure ikastetxeetan, ukatzen den gai baten inguruan hausnartze-  
ra animatzea da, hots, galeraren eta heriotzaren inguruan. Xede horrekin ari dira aurrera eramateen Katalunian Doluaren Pedagogia.

### Hik Hasiko Topaketetan eman zenuen ikastaroan zein mezu igorri zenuen?

Mezua honakoa izan zen: heriotzaren, galeraren, sufrimenduaren eta doluaren pedagogiaren beharra dagoela. Ikastaroaren intentzioa izan zen gai horren inguruan sensibilizatzea, helduok gai hori lantzeko dugun beharraz konturatzea, bideratzea, aurre egitea eta trebatzea, gero haurrei eta gazteei transmitu ahal izateko. Azken batean, alboratu duguna errekuperatzea da.

Izan ere, gizarte modernoak eta postmodernoak gai horiek baztertu egin ditu pertsonen arteko harremanetatik eta giza komunikaziotik. Beste arlo batzuetan, ordea, ez da baztertu heriotza, hor dago. Telebistako albistegietan egunero ikusten ditugu heriotzak eta ezbeharrak. Ez da gauza bera gertatzen harreman pertsonaletan;

errekurtsorik gabe gaude, ez dugu eza-gutzen. Horregatik, ikastaro hauetan komunikazio gaitasunak eta aurre egiteko abileziak erakusten saiatzen gara galeraren aurreko minari aurre egiten ikas dezagun. Teknikoki *doluaren lan-keta* deitzen zaio. Niri *doluaren eraldaketa osasungarria* deitzea gustatzen zait.

Beste modu batera esanda, norbait kontziente denean zerbaiten edo norbaiten galera izan duela, sentimenduzauri bat duela esan nahi du. Horren aurrean gure sistema naturalak zauri hori konpon dezan saiatzen gara. Hori modu osasungarrian gerta dadin kanpoko laguntza eskatzen du batzuetan jendeak.

**Gizarte moderno eta postmodernoak gai hau baztertu egin duela esan duzu. Horrek zer esan nahi du, lehen present zegoela heriotza?**



Lehen komunikazioa beste era batekoa zen; ez zegoen hiri handirik eta elkarren arteko harremanak estuagoak ziren. Askotan galdetzen zitzaion aldamenekoari zer moduz zegoen, zer gertatzen zitzaion eta abar. Gaur egun, bizimodu indibidualagoa daramagu eta galeren aurrean bakarrik gaude. Gure gizarte aurreratuak gero eta gehiago modernizatu diren heinean, aseptikoagoak bihurtu gara. Emozionaltasuna desprestigiatur joan da eta arlo askotan emozioetan alfabetatzeko beharra sortzen ari da.

### **Alderdi emozionalean analfabetoak al gara, hortaz?**

Baietz esango nuke. Hamarkada hauetan arrazoa-emozioa binomioaren arteko desoreka ikusi dut. Berez burmuineko hemisferio biak ahal diren

**“Heriotza oso lotuta dago alderdi emozional horrekin, eta gaur egun emozioak nola maneiatu jakin ezinik gabiltza”**



gehien garatu beharko genituzke, ezkerrekoa zein eskuinekoa. Ezkerreko aldean arrazoitzeko, ulertzeko eta analizatzeko funtzioak daude, eta eskuinekoan intuizioari, emozioari eta afektibitateari lotutakoak. Egungo gizartean ezkerreko hemisferioa da nagusi, hots, arrazoa, analisia. Ondorioz herren gaude, urritasunekin. Ez gara eskuineko alderdi horren jakitun, eta ez dakigu nola landu. Ni paradigma holistikoaz baliatzen naiz desoreka hori konpon-tzen saiatzeko.

### **Zer da paradigma holistikoa?**

Sistemen teoriaren ikuspegitik munduaren perspektiba bat izatea da, interakzioan oinarritzen den perspektiba. Horren arabera gizakia bost dimentsioz osatuta dagoela esaten da eta beraien artean interakzioan daude. Dimentsioak hauek dira: mentala edo arrazionala, fisikoa (gorputz guztiaren igerle eta hartzaile dena), emozionala, gertuko nahiz gizarteko harremanak, eta espirituala (bakoitzarentzat esan nahi duena esan nahi duelarik; batzuentzat erlijioarekin oso lotuta dago, eta beste batzuentzat ez).

Gizakiaren baitan dauden bost dimentsio horiek elkarren arteko interakzioan daude: pentsatzen dugunak eragina du sentitzen dugunean, emozionalki sentitzen dugunak eragina du dimentsio fisikoan, egoera emozionala-

ren arabera hobeto edo okerrago arrazoituko dugu, era batera edo bestera erlazioatuko gara...

Hain garrantzitsua den alde emozional hori ezezaguna da, ez dago ondo ikusia sentimenduak adieraztea eta ez dugu sentitzen duguna komunikatzen.

Heriotza oso lotuta dago alderdi emozional horrekin, eta gaur egun emozioak nola maneiatu jakin ezinik gabiltza.

### **Alde emozionala maneiatzen erakustea al da zure eginkizuna?**

Bai, dimentsio hori bideratzen lantzea. Ikastaroetan azalpen teorikoak eman arren, alderdi praktikoa da benetan garrantzitsua. Bizipenak lantzeko ariketa eta proposamenak egiten ditugu emozioak bideratzeko edo kanalizatzeko, eta emozio handiko uneak bizitzen dira.

### **Zein dira proposamen edo ariketa horiek?**

Bat baino gehiago daude, indibidualak eta taldekoak. Esate baterako, ariketa indibidual batean idatziz erantzuteko galdera batzuk planteatzen dizkiet: heriotzaren aurrean zer sentitzen, pentsatzen, esaten eta egiten dut? Zer sentitzen dugun galdetzean komeni da. Bereiztea zer sentitzen dugun emozionalki eta zer fisikoki. Baita emozio jakin bat (tristura, amorrua...) non sentitzen dugun ere (eskumuturrak edo hortzak estututa, buruko mina, eztarriko korapiloa...).

Galdera horiek erantzuteak gaiaren aurrean jartzen gaitu, eta horrek guztiak emozioen hizkuntzarekin zerikusia du. Hobeto ezagutzen badugu, hobeto bideratuko dugu, beti ere, osasunez, era osasungarrian.

### **Zer esan nahi du emozioak osasuntsu bideratzeak?**

Bi kontzeptu daude. Hasteko *bideratu* hitza erabiltzen dut, eta ez *adierazi*. Zergatik? Bideratzeko modu bat baino gehiago daudelako. Pertsona batzuek isiltasunean, beren buruarekin konektatuz bideratzen dituzte emozioak. Beste batzuek errezatuz, hausnar-





tuz, hitz eginez, saltatuz, dantzatuz, negar eginez, buila eginez... beti modu osasungarrian.

Hori da bigarren kontzeptua, modu osasuntsua. Adibidez, haserre edo triste egon eta alkohola edanez ahazten saiatzea ez da osasungarria, nire ustez. Haserrealdia pasatzeko autoa hartu eta autopistan 100-200 km/h abiaduran ibiltzea ere ez. Ezta aurrean daukagun lehenengoari (haurrari, senarrari, emazteari, lankideari...) garraisika erantzutea ere, horrek harremana konplikatu baino ez baitu egiten.

### **Zein izango litzateke modu osasungarria?**

Nik adibide bat jarri ohi dut beti: Cabaret filmean badago jende askok gogoratzen duen eszena bat. Liza Minelli protagonista oso haserre dagoeneko eta tren zubi baten azpira joaten denekoa. Trena tutua joz pasatzen denean berak ere garraisi egiten du. Eta ondoren lasai-lasai itzultzen da. Niretzat oso modu osasuntsua da.

Zenbaitek, ordea, ezingo lukete hori egin, emozionalki gainezka egingo lukeelako. Horientzat beste modu batzuk bilatu behar dira.

### **Hurrei emozioak bideratzen irakasteko lehenengo helduek ikasi behar dutela uste al duzu?**

Beno, aldi berean egin daiteke. Ez dugu helduok perfektuak izan arte itxaron behar, bestela ez baitugu ezer egingo.

Garrantzitsua da denok arlo hau lantzeko intentzioa eta borondate ona edukitzea. Geure burua ezagutu behar dugu, beharrezkoa da gure emozioak,

sentimenduak, pentsatzen duguna eta sentitzen duguna ezagutzea. Helduentzat nahiz haurrentzat da garrantzitsua.

Gainera, haurren kasuan familia, eskola eta komunikabideak dira eragile nagusienak eta ez batean ez bestetan ez dira bideratzen emozioak. Horretan laguntzea da gure eginkizuna.

### **Nola ikusi duzu ikastaroko taldea?**

Ikastaro hauetan zerbaitegatik ematen dute izena, eta horrekin soilik lehen urratsa emana dute. Ondoren, taldean konfiantza sortzen den heinean, ohikoa da norbere esperientziak kontatzen hastea: seme bat hil zaiola, fase terminalean dagoen ama duela, osasunez ondo dagoen 80 urteko aita edo ama duela eta hil egingo dela pentsatzean oso triste jartzen dela... Egoera hunkigarriak sortzen dira eta aberatsa da oso. Hausnarketa teorikotik haratago aplikazio praktikoetan murgiltzen gara, hori baita bereziki interesgarria. Ikastaroetik atera ondoren euren eguneroko bizitzarako bitarteko praktikoa eramango zituztela espero dut.

### **Dena dela, gaia delikatu dela kontuan hartuta, ez al dago arriskurik agerian jartzen diren sentimendu horiek itxi gabe gelditzea?**

Bai, arrisku hori badago eta horregatik kontu handiz ibili behar dugu. Guk erantzukizun handia daukagu. Askotan erraza da emozionalitatea irekitzea, gehiegi sakontzea eta zauria irekita gelditzea. Dena dela, guk ezin dugu den-dena kontrolatu, ezin dugu ziurtatu pertsona guztiak zauriak itxita joango direnik. Gaiak emozionalki barruak

mugitzen ditu, hausnarketara bultzatzen du, eta bi funtzio edo dimentsio horiek ahal den ondoen integratzeaz arigara. Horregatik, gu oso arduratsuak izaten saiatzen gara ikastaroak antolatzean eta horrelako interbentzioak bultzatzean. Bai baitakigu oso-oso delikatuak diren puntuak ukitzen ditugula.

**“Nor bait kontziente denean zerbaiten edo norbaiten galera izan duela, sentimenduzauri bat duela esan nahi du. Horren aurrean gure sistema naturalak zauri hori konpondezan saiatzen gara”**



**G A I A**  
Heriotza heziketan  
Hilarriak biribilketan

**G**

# marta mata

Pedagogo eta irakasle  
katalana



Oinarrian hezkuntzaz zer  
ulertzen den dago, hau da, eskubide  
bezala edo merkatuko ondasun  
bezala ulertzen den





Dialektikak  
hirukoitza izatera  
iritsi behar du. Hau  
da, hurrekin lan  
egin, profesionalki  
aurreratu eta  
sozialki  
konprometitu egin  
behar dugu  
haurraren hezkuntza  
eskubidea edonon  
defendatzeko.  
Hezitzaileak hiru  
paper horiek jokatu  
behar ditu

Marta Mata pedagogo eta irakasle katalanaren bizitza osoa haurren heziketarekin lotua egon da. 1965ean Rosa Sensaten sortzaileetako bat izan zen. Betidanik egon da Haur Hezkuntzari loturik, eta 0-6 urteko etapa hezkuntza dela errebindikatu du egon den leku guztietan: Berrikuntza Pedagogikoko Mungimenduko partaide eta bozeramaile zenean, PSCKo diputatu zelarik aurre-proiektu bat egin zuenean eta Kataluniako parlamentuko senatari zenean. LOGSE legearen bultzatzaile eta defendatzaile ere izan zen Madrilen diputatu zelarik. 1999ko maiatzaren 5ean Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak *doctor honoris causa* izendatu zuen.

Jubilatuta egon arren, oraindik ere haurraren hezkuntza eskubidearen defentsan jarraitzen du, eta badu zer erakutsia. Horregatik gonbidatu zuen sortu berri den 0-3 Haurraren Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Mahaiak Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) aldeko jardumaldietara.

**EAEko Haur Hezkuntzaren egoera ezagutzen duzu eta badakizu Eusko Jaurlaritzaren asmoa 0-3 etapa Hezkuntza Saitetik Justizia eta Lan Saileira pasatzea dela. Zer iritzi duzu horren gainean?**

Ez da hemen soilik duzuen arazoa, mundu osoak duen korapiloa baizik. Oinarrian hezkuntzaz zer ulertzen den dago, hau da, eskubide bezala edo merkatuko ondasun bezala ulertzen den. Hor dago korapiloa. Mundu mailan bi txosten oso interesgarri sorrarazi ditu korapilo horrek: Delors-en txostena eta Munduko Bankuaren txostena.

Munduko korapilo horretan gaudelarik, hemen konkretuki Eusko Jaurlaritzaren planaren hizkuntza edo hiztegia errepasatzea eskatuko nizueke. Besteak beste, honako puntu hauek aipatzen ditu: ugalkortasun tasa, premia egoera, euskaldunek seme-alaba gehiago izan nahi dituztela, dena oso garesti dagoela eta haurrak heztea asko kostatzen dela, lan egiten baduzu ezin dituzula seme-alabak zaindu, urte batzuk barru biztanleriaren %30ak 60 urte baino gehiago izango dituela, pensioen etorkizuna, gastuen gorakada, familia bizitza eta lana elkar aditzeko neurriak hartu behar direla, familiei laguntzeko zerbitzuak jarri behar direla, laguntza ekonomikoak eta fiskalak eman behar direla, sentsibilizazio neurriak ere bai... Hezkuntza hitza ez da aipatu ere egiten. Haurra ez da ikusi ere egiten. Eta hori da larriena.

**Horren aurrean, zer iruditzen zaizkizu Haurraren Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Mahaiak egiten dituen eskakizunak?**

LOGSE legeari helduz bere puntu positiboak defendatzen ditu. Momentu honetan LOGSEk dio 0-6 etapa hezkuntza dela. Mahaiak hori garbi ikusten duela uste dut, eta legetik garrantzitsuena dena hartu duela; hots, neska mutil guztiek jaiotzetik hezkuntzarako duten eskubidea.

Hortaz, Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako lehen zikloa garatu behar du etapa horren ezaugarrietara

egokituz. Ezaugarri horiek haurren eskubide pertsonal guztiak dira.

Bestalde, Mahaiak Haur Hezkuntzako mapa egitea eskatzen du, haureskola publiko zein pribatuak barnean hartuz. Eta azkenik, LOGSE esatera auzartu ez zen gauza bat ere eskatzen du, oso interesgarria iruditzen zaidana: Haur Hezkuntzako profil profesionala diseinatzea Hezkuntza Saileko gainontzeko profesionalen lan baldintza berberekin. Hori oso garrantzitsua dela iruditzen zait.

### **Haurren hezkuntza eskubidearen inguruan mundu mailan dauden bitxosten aipatu dituzu. Zein dira eta zer diote?**

Bata Munduko Bankuaren txostena da eta bestea Delors-ena. Biek hitz egiten dute haurren hezkuntza eskubideaz, eta hitzak leuntzen dituzte horretaz ari direnean. Munduko Bankuaren txostenak ere bai, baina hala ere, bere ideiak nabarmen gelditzen dira: irakaskuntzaren errentagarritasuna da kezka nagusietako bat, kantitatea eta kalitatea kontrajartzen dira, irakaskuntzako azken urteei ematen die lehentasuna eta ez lehen urteei... praktikoki ez da Haur Hezkuntzaz hitz egiten. Delors-en txostena, aldiz, guztiz kontra-koa da.

Haatik, korapilo honetan hezkuntza haurren eskubidea dela pentsatzen dugunok badakigu abagune garrantzitsua daukagula: haurren eskubideen aitorpen internazionala edo hitzarmena.

### **Zer da haurren eskubideen hitzarmena?**

Haurren eskubideen adierazpena 1959an egin zen lehen aldiz, gizon-emakumeen eskubideen adierazpena baino 20 urte inguru geroago. 1989an haurren eskubideen hitzarmena akordio internazional bezala onartu zen. Horretarako, gobernu eta estatuetako goi karguen bilera egin zen, eta zenbait adierazpen ere jaso ziren, beroriek errespetatzeko hitza eman zutelarik. Adibidez, haur bati bere nortasunaren elementuren bat debekatzan

baldin bazaio, estatu kideek behar duen asistentzia eta babes egokia emango diotela bere nortasuna berretaratzeko. Badakigu zein gutxi betetzen den hori, baina esaldi hori defentsa arma bat da haurrak hezkuntzarako duen eskubidea publikoki defendatu behar duenarentzat.

### **Zein da haurren eskubideen hitzarmenaren mamia? Zein eskubide jasotzen ditu?**

Nortasunaren garapenaren garrantzia zehazten du, gurasoekiko errespetua, kultur eta hizkuntza nortasuna, bere komunitatearen eta hainbat zibilizazioen balioak, gizarte libre batean bizitze arduratsua eramateko prestakuntza, ulermena, bakea, tolerantzia, sexu berdintasuna, herrien eta talde etnikoen arteko laguntasuna (nazionalak eta erlijiosoak) eta haurri ingurumenarekiko errespetua erakustea. Beste zer bait ere gehitzen du: eskubide horiez gain, haurrak eskubidea duela bere adimen propioa formatzeko, pentsamendu librea, kontzientzia, pribatasuna eta bere iritzia propioa adierazteko, entzuna izateko eta bere intimitatea errespetatua izateko. Hori ezin da lege batean jarri, baina hitzarmenean idatzita dago eta geureganatu egin behar dugu hezitzaileok eta gurasoek.

### **Giza eskubideak eta haurren eskubideak aipatzean sarritan ezaugarri soziala dutenak eta giza nortasunarekin lotuta daudenak bereizten dira. Zer ondorio du horrek?**

Ezaugarri soziala duten eskubideak botere publikoak bermatu behar ditu egungo sistema sozialen bitartez; haurrak justiziarako eskubidea du, eta horretarako sistema judiziala dago; haurrak osasunerako eskubidea du, eta horretarako osasun sistema dago; haurrak hezkuntzarako eskubidea du, eta horretarako hezkuntza sistema dago. Denak ere eskubide sozialak dira.

Giza nortasunarekin lotuta dauden eskubideen erantzukizuna, aldiz, nahastuago dago: ez da botere publikoaren erantzukizuna soilik, baita familiarena, profesionalena eta hiritarrena ere. Hiri-



tar orok kontziente izan behar du kalean pasatzen den haurra babestu behar duela bere hezkuntza eskubideari dagokionean.

Horrenbestez, oso argi gelditzen da haurren eskubidea eskubide soziala izateaz gain (botere publikoaren eskuhartzea eskatzen baitu), haurren hezkuntzan parte hartzen dugun guztion (guraso, hezitzaile, familia, bizilagun, hiritar...) estilo, teknika edo eredu bat eskatzen duela adin, testuinguru eta kasu bakoitzera egokitu ahal izateko.

### **Gaur egungo testuingurura egokitu beharrak eraman du Eusko Jaurlaritza hasieran aipatu dugun aldaketa egitera. Hau da, gizartearen aldaketari eta eskaerari aurrera egiteko. Zer da gozki, orduan?**

Egin duen moldaketa, hori dago gozki. Hor dago gakoa. Lehen aipatu dudana bezala, bere txostenean ez dira haurra eta hezkuntza agertu ere egiten.

Dudarik gabe, hezkuntza eredu aldatu egin behar da gizartearen aldatzen den heinean. Gaur egun hiritar oren erantzukizuna da haurren hezkuntza. Izan ere, haurrek ez dute familiaren eragina soilik jasotzen, ingurune osoarena baizik. Familiaren eragina kuantitatiboki gutxitu egin da, gizarteko beste edozein bitartekoren eragina gehitu den bitartean. Ondorioz, haur batek etxean irratia gehiago entzuten du bere gurasoei baino; etxe barruan telebistaren bitartez gauza gehiago ikusten ditu kanpoan baino; gurasoen bizitza osoa kanpoan gertatzen denaren peskizana dago; orain dela 150 urte gurasoen



Guk hemen  
orain arte erabili  
dugun pedagogia  
guztiak balio du,  
baina hurrari  
entzuteko erabili  
behar dugu. Gu  
egiten saiatu garen  
guztiak hurrari  
zertarako eta nola  
balio izan dion  
jakin behar dugu  
eta horretarako  
hurrari entzun  
behar diogu.

%80ak etxean egiten zuen lana, eta egun etxean lan egiten duen aiten kopurua ez da %5era iristen. Horrek haurren eredu aldatzen du, eta ondorioz, eskolak eta hezitzaileok haurren garapen beharraz konbentzitzeaz gain, gurasoak ere konbentzitu behar ditugu beraiek ez direla horretarako formatu.

#### **Nolako aldaketa edo egokitzapena behar da?**

Dialektikak hirukoitza izatera iritsi behar du. Hau da, hurrekin lan egin, profesionalki aurreratu eta sozialki konprometitu egin behar dugu haurren hezkuntza eskubidea edonon defendatzeko. Hezitzaileak hiru paper horiek jokatu behar ditu. Eta horrekin batera gurasoekin aurrez aurre mintzatu behar dugu, instituzio guztiak hitz egin eta eskubide horiek defendatzeko geure instituzioak sortu.

Gizarteko aldatetek haurren beharrianak aldatzen dituztela ikusteko sentsibilizatuta gaude hezitzaileok. Hori da gure berezitasuna.

#### **Gizarte osoa sentsibilizatu behar da, hortaz.**

Bai, gizarteak askotan ez du hezkuntza eskubidea ikusten, Eusko Jaur-laritzaren edota Munduko Bankuaren dokumentuek esaten dutena baizik: zenbat kostatzen den, ordutegia... Merkatuaren gizarteko aitak haurra jabetza pribatu bezala ikusten du. Badira,

ordea, beste guraso batzuk, munduan dabilzan haziak eraginda edo gure eragina dela medio, aldatu egin direnak. Eskolaren funtzioa ondo ulertzeaz gain, aita eta ama biak arduratzen dira haurren hezkuntzaz.

Jende askoren burmuinean aldaketa eragin behar dugu, Haur Hezkuntza-ren lehen zikloaren kontzeptuaren aldaketa kulturala sortu behar dugu, eskola tradizionalak jasan zuenaren analogoa. Elite batzuentzat zen eskola tradizionalak, denentzat izan behar zuela aldarrikatu zen frantses iraultzan. Ondorioz, eskola guztiengana hedatu zen, baina inertziak eraginda, eredu tradizionala zabaldu zen, denei eredu bereiztaile hura ezarri zitzaion.

Beranduago Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduak eskola berria eta aktiboa aldarrikatu zuen, eta momentuor horretan jarraitzen du. Eskola haurren aktibitateak hasita egin nahi zen, ordura arteko ideiak alde batera utzita. Eskolaren zentroa ez da irakasten den jakintza, bizitza eta konpartitzen den haurren hazkunde baizik. Eskolaren zentroa haurren garapena da, eta bere adimen guztiak garatu behar dira.

#### **Adimen horiek guztiak garatzeko zein metodologia proposatzen duzu?**

Jolasa eta entzutearen pedagogia funtsezkotzat jotzen ditut, horiek dira erabili behar ditugun tresnak.





### Zer dela-eta jolasa?

Haurrak betidanik jolastu izan du; aldiz, iritzi publikoak deskantsatzeko modu bezala ikusi izan du. Haurrak gelatik jolastokira basatien modura irtean direnean horrela ateratzeko barruan zer gertatu ote den pentsatzen dut. Bestalde, gelan gozatu duten haurrak lasai ateratzen dira jolastokira, gela barruan jolasten duten bezala jolastera.

Aditu eta jakitunen artean adostasuna egon izan da jolasen heziketa potentzial izugarria baloratzeko garaian. Jolasa hurren berezko ekintza da, jolasaren bidez deskubritzen dute mundua eta lan egiten ikasi ere bai. Jolasak haurrari beste baten lekuan jartzeko aukera ematen dio, esperimintatzeko, erreal eta irrealaren arteko muga hausteko, eta dena lagunen konplizitatearekin. Jolasak segurtasuna hartzen laguntzen dio. Sormena lantzeko aukera ematen du. Beraz, utz diezaiegun jolasten! Utz diezaiegun hezitzaileei ere hurrekin jolasten! Jolasean hainbeste eta hain onak diren ezaugarri hezitzaile positiboak ikusteko gai bagara, nolatan lan egiten dute Haur Hezkuntzako hezitzaileek fitxekin? Nolatan daukate hainbesteko ardura curriculumarekin? Nolatan onartzen dugu telebistak eta hirigintzak ia haur jolasak debekatzea hirugarren pedagogia bati bidea irekitzen badiote?

### Zein da hirugarren pedagogia bide hori?

Entzuketa pedagogia, hots, haurrari entzutea. Hori funtsezkoa da. Haurraren portaera eta jolasa behatzen baditugu haurrek nolako kuriositatea duten

ikusiko dugu, euren lan egiteko gaitasuna, probak egiteko, aldatzekoa... Behaketa honetan entzuketaren pedagogiarekin oinarria dago. Horixe da orain dela urte batzutatik Reggio Emilian egiten ari direna, eta hori egiten hasi beharko genuke.

Han eskolako aktibitatea ez da curriculumetik abiatuta planteatzen, baina haurraren behaketa dokumentuetatik. Gela bat haur talde handi bat bezala hartzen da. 3 urteko gela batean 26 haur izatera irits daitezke, baina bi hezitzaileekin egoten dira, eta talde txikitik lan eginez. Hezitzaile bat nora ezean dauden haurrei laguntzen egoten da, besteak sistematikoki haurrek esaten dutena idazten du. 26ko edo 15eko gela batean denak hezitzailearen inguruan jartzen badira, ez dute hitz egiten. Talde txikitik jarrita, ordea, bai. Ondoren, haurrek esandakoa jaso, aztertu, eztabaidatu eta horren arabera erabakitzen dute zein aktibitate mota egin.

Guk hemen orain arte erabili dugun pedagogia guztiak balio du, baina haurrari entzuteko erabili behar dugu. Gu egiten saiatu garen guztiak haurrari zertarako eta nola balio izan dion jakin behar dugu eta horretarako haurrari entzun behar diogu. Ez da orain arte bezala guk galderak egin eta haurrek erantzutea, alderantziz baizik. Gogoratu Loris Malaguzzik zioena: haurrak 100 hizkuntza dituela eta 99 lapurtu egiten dizkiogula. Askotan, gainera, hizkuntza horien edukiak kezkatzen nau ni.

Hezitzaileei ere hizkuntza asko debekatu izan zaizkigu, eta edukiak ere bai. Horiek aldarrikatu behar ditugu. Aditzera eman behar dugu hezitzaileak garelako gustatu egiten zaigulako, haurrak haztea gustatzen zaigulako, haurrak maite ditugulako, elkar maite dugulako eta gure herria maite dugulako.

**Azkenik, bukatu baino lehen, balorazio bat eskatu nahi dizugu. LOGSE Legearen Haur Hezkuntzako zatia diseinatzen ibili zinen. Orduko asmoak bete al dira?**

Egia esan, ez. Ikastetxeei ez zaie eman aurreikusten zen autonomiarik. Katalunian horren adibide garbia daukagu. Hezkuntzaren ardura Generalitatearen esku gelditu zen, baina Madrilek zeukan zentralizazio berarekin jarraitu du. Haren eredu berberarekin segitu du eta hezkuntzako partaideei ez die aukerarik eman euren esku-hartzea garatzeko eta zabaltzeko. Eta horrek izugarri mugatzen du ikastetxeen dinamika eta potentzialitatea.

### Batzuk diote LOGSEren porrotaren arrazoa sostengu ekonomiko nahikorik eman ez izana dela. Iritzi horretakoa al zara?

Neurri batean horregatik izan daiteke, baina lehen aipatu dudanak garrantzi eta pisu handiagoa duela iruditzen zait. Ikusi besterik ez dago Euskal Herrian gertatzen dena. Haur Hezkuntza garatzen lehenengoetarikoa izan zen, maila oso garatua du, esperientzia gutziz aberatsak eraman dira aurrera eta talde lana egiteko ohitura handia dago. Herri bezala dituen posibilitateak izugarriak dira. Baina ez zaio uzten. Ikastetxe bakoitzari bere Hezkuntza Proiektua garatzeko jartzen zaizkion mugak ezin dira ahaztu LOGSEren porrota aipatzen dugunean.



# E sperientzia



## Haurrak eta euskarazko jolasak

### Jolasek kaleko euskara bultzatzeko balio dute

Orain dela bi ikasturte jarri zuten abian Sortzen-Ikasbatuaz-ek *Euskaraz mintza* proiektua, eta aurten ere jarraipena erango zaio. Euskal Herri osko hainbat ikastetxe publikotan garatzen ari den proiektu honen helburu nagusia haurrek kaleko euskararen erregistro hurbilak ezagutzea zen. Horretarako, jolasetan oinarritzen dira, hau da, jolasen bitartez bultzatzen dute haurren artean hizkera arrunta. Izan ere, funtsezkotzat jotzen dute kaleko hizkera menperatzea euskararen erabilera hedatu eta areagotu ahal izateko.

Bitarteko bezala jolasak aukeratzeko, arrazoi bat baino gehiago egon ziren. Alde batetik, jolasen balio pedagogikoa; bestetik, jolasen egokitasuna lehiakortasunik sortzen ez dutelako; hirugarrenik, jolasak errekuuperatzeak duen garrantzia, gaur egun kirola lekua kentzen ari baitzaie; eta azkenik, telebistak eta beste medioek eskaintzen ez dituzten hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte.

Kaleko hizkeraren erabilera areagotzeko ardura zuzenean eskolari ez badagokio ere, badu bere erantzukizuna, eta hori bere gain hartu zuten aipatu ikastetxeek. Urtxintxa Aisialdi Eskola-

ko begiraleen eskutik ikastaroak jaso zituzten irakasleek, eta horren ondotik ikasleekin landu dituzte jolasak. Hainbat eskolatan jolasorduetan aritu dira, beste zenbaitetan jangelan eta badira Euskarako klaseetan landu dutenak ere; bakoitzak bere egoerara egokitu du proiektua. Horietako hiruk beren esperientziaren berri eman digute: Basauriko Arizko ikastolak, Iruñeko Axular udal ikastolak eta Kanboko eskola publikoak.

Esperientzia eta garatu duten bidea ezberdina den heinean, emaitzak ere hala izanen dira. Baina, orokorrean, arrakasta izaten ari den programa da eta Sortzen-Ikasbatuazeko arduradunak gustura daude. Aurtengo abendura arteko finantzazioa dauka *Euskaraz Mintza* proiektuak, baina Sortzen-Ikasbatuaz datorren urterako jarraipena lortzen saiatuko da. Izan ere, gero eta ikastetxe gehiago dira *Euskaraz Mintza* parte hartu nahi dutenak. Nafarroa eta EAE n sei ikastetxete hasi ziren, eta orain beste bederatzik egin dute eskaera. Iparraldean 20 ikastetxetako irakasleek orain arteko lanarekin jarraituko dute.

Zenbait kasutan gurasoei ere eman zaie jolasen ikastaroa, eta arrakastatsuak izan dira. Guztira zazpi ikastaro eskaini dira, eta abendura bitartean beste lau egingo dira.

Abenduan ebaluaketa egingo da eta benetan euskararen erabilerak aurrera egin duen ala ez ikusiko da. Orain arteko emaitzei begiratuz gero, baiez-

koa esan daiteke, erabilerak gora egin duela eta proiektua arrakastatsua suertatzen ari dela.

Bide horretan ikastetxe bakoitzak bere erritmoan jarraitu arren, proiektuaren fase berri bat etorriko da ikasturte honetan, 4. fasea izango dena. *Euskaraz Mintza* parte hartzen duten ikastetxe guztien artean lan komunak egitean oinarrituko da fase hori. Proiektua Euskal Herri mailakoa izanik osotasuna eman nahi zaio, eta oraindik nola zehaztu gabe dagoen arren, hainbat ekintzaren bidez gauzatuko da: jolasen eguna, elkar trukeak... Ikastetxeetako haurrak helburu jakin batekin elkartzeko dira: jolastea, euskaraz jolastea, eta horrela euskararen erabilera gehitzea.





## Iruñeko Axular udal ikastolako esperientzia

Iruñeko Udal Ikastolen sorreratik bertatik hezkuntzako sektore guztien arteko elkarlana nagusitu da geure ikastetxeetan. Duela 17 urtetik hiru ikastetxe gara, eta horietako bat gure eskola da. Axular Iruñeko Txantrea auzoandago kokatuta. Auzo honen barne ezaugarriak kontuan izanik (langile auzoa da, gerla osteko migrazioak zirela-eta etorkinekin sortu zena, batez ere nafarrak izanik, eta auzolanean eraikitak), hezkuntza mailan eta euskal kultura alorrean gure eskola aitzindarietako bat bezala hartzea ez da harrizkoa.

Garai gogorak igaro ditugu, baina "espíritu sortzaile, berritzaile eta iraultzaile" ez hornitu gaituzte.

Aspaldian hizkuntza plangintza baten beharra ikusten genuenez, esperientzia ugari eraman ditugu aurrera. Duela bost urte Euskal Autonomia Erkidegoaren babes ofizialpean sortu zen taldeen berri izan genuen, eta berehalaxe Sortzenen bitartez harremanetan jarri ginen haiekin. Ondorengo ikasturteetan lan honetan jardun gara, ia-ia beti Nafar Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren eta gure titularraren udalaren laguntzarik gabe, irakaslearen eta gurasoen borondatean eta ahaleginean oinarrituz.

*Euskaraz Mintza* proiektua bere sorreratik ezagutu dugu. Euskara formalaren garapena gure curriculumean nahiko bermatuta zegoela ikusita eta erabilpenaren diagnosiaren emaitzak jakinda, haurrek kaleko euskararen erregistro hurbilak lantzea derrigorrezkoa ikusten genuen. Gure ingurua erabat erdalduna izanik ez dugula erraza, baina proiektu honek bidea erraztuko digula iruditzen zaigu.

Lehendabizi, irakasleria osoaren iritzia kontuan izanik, gure arteko bileretan proiektu honen uztarpena nola egin erabaki genuen. Gure Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren oinarria Hizkuntza Plangintza izanik, bertan bere hastapena lantzen hasi ginen. Hastapenari garrantzi handia eman genion proiektuaren garapena bermatzeko.

Proiektuaren behar formalak zehaztu genituen, eta horrela jolasaldietan eramango genuela aurrera erabaki genuen. Honetarako, jolasaldiaren funtzioa, tokia, saioak eta taldeak proiektuaren arabera antolatzen hasi ginen. Horrela, egunero "jolasensaioa" tokatzen zaion taldea 10 minutu lehenago ateratzen da aterpera, hamaiketakoa hartu ahal izateko. Ondorengo 30 minutuetan jolasetan aritzen da.

Behar formalak antolatu ondoren, begiralea gure ikastetxeko errealitatean sartzeko eta bertakoa sentitu ahal izateko aurkezpena egin genion, bai irakasleok eta bai ikasleek. Lehenengo kasuan gure Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua zertan zetzan, ahal ziren neurrian gure ezaugarriak, arauak, ohiturak, eta abar aipatu genizkion. Ondoren, ziklo bakoitzeko koordinatzailearekin ordu erdiko saioa paratu genuen. Bileran horietan idatzita eman genizkion zikloko irakasleen izenak, zikloko ezaugarri nagusiak, zer espero zuten proiektu honetatik eta ikastalde bakoitzaren ezaugarri nagusiak. Gehienetan, koordinatzailearekin ez ezik, irakasle guztiarekin egoteko aukera izan zuen. Irakasleen aurkezpena eskola orduetan landu genuen: ordu erdiz gure begiralea den Edurne eta tutorea hurrekin aterperaigotzen ziren, eta alde aurretik paratutako jolas batekin hasten ziren. Jolas horiek aukeratzeko kontuan hartu genuen biziak, erakargarriak, ezezagunak eta ahal ziren neurrian beraien interesetan oinarritutakoak izatea.

Hasiera honen ebaluazioa oso positiboa izan zen, haur guztiek poz-pozik harrera egokia egin zitelako bai begiraleari eta baita proiektuari ere.

Proiektuaren berri eman zitzaion hasieran Guraso Elkarteari eta Eskola Batzordeari ondoren, eta beren onespena jaso zuen. Horrez gain, mailetak guraso bileretan guraso guztiei informazio zabala eta zehatza eman zitzaion. Oso harrera ona izan zuen.

1999/2000 ikasturtean hurrekin aritzeko jolasak zikloko bileretan aukeratzeko ziren, hots, tutoreek. Izan ere, beraiek ezagutzen zituzten ondoen



haurrak. Ondoren, begiraleak jolas horiek prestatzen zituen. 2000/2001 ikasturtean, ordea, astean behin begiralea eta zentroko proiektuaren koordinatzailea elkartzen ziren saioak prestatzeko. Bileran horietan jolasak aukeratzeko gain, behar den materiala, abestiak edota, behar izanez gero, arauak ere paratzen ziren irakasleek alde aurretik gela bertan landu ahal izateko. Noizean behin, saioen ebaluazioa ere egiten dute. Horretarako, bai monitoreak bere aldetik, bai irakasleek berenetik, saioen ebaluazio fitxa txiki bat betetzen dute.

Proiektuaren garapenari begira, euskararen erabilpenaren neurketa batzuk egin dira: lehenengo proiektua ezarri baino lehen, hots, aurkezpena egin aurretik, begiraleak berak egin baitzuen; bigarrena 1999/2000 ikasturtearen amaieran hiruzpalau hilabete horietan gertatukoaz jabetzeko; eta hirugarrena 2000/2001 ikasturtearen hasieran, udako etenaldiaren ostean nondik hasi behar genuen jakin ahal izateko.

Prozesu osoan tutoreen parte-hartzea eta inplikazioa bikaina izan da, haurren interesa sortuz eta begiralea ikastetxeko partaide sentiarazten. Egiten ari garen elkarlana oso baikor ikusten dugu eta denok bide beretik goazela nabaritzen ari gara. Euskararen erabilpena ere areagotzen ari dela nabarmentzen da, eta ia zikloko ikasturte amaieran egiten zen neurketan emaitza baikorrak lortu dira.

## Basauriko Arizko ikastolako esperientzia

Sortzen eta Ikasbatuaz elkarteen arteko lankidetzaren emaitza izan zen Euskaraz Mintza proiektua 1999ko ekainetik aurrera bilakatu zen solasgai Arizko ikastolan. Hasierako bilerak eta haietatik sorturiko zirriborroak 1998/99 ikasturtearen amaieran ezagutu zuen argia.

Proiektuaren esparrua jolasorduei begirakoa bazen ere, gurean bestelako erabakia hartu zen. Arrazoirik ez zitzaigun falta. Euskaraz Bizi proiektua aurrera eramateko konpromiso sendoa adostu genuenetik, jolasorduak ere baren hartu izan ditugu, plangintza osoaren beste atal bat legez. Beste aldetik, ikastola handia izatean, jolas garaiaren iraupena laburregiztat jotzen genuen, patxadaz eta ganoraz programazioa arrakastaz burutzeko. Eta gainera, erabateko adostasuna lortu zuen beste balorazio hau ere mahairatu zen: euskara jatorraren erabilpena sustatzeko berezko premia zuena bazkalorduaren inguruko tarteazela. Gogoan hartu behar dugu Arizko ikastolako ikasle erdiak baino gehiago direla zerbitzu horren erabiltzaileak, eta protagonismoa emanez, talde eraginkor bilaka dezakeguna.

Arrazoi horiek nagusi, irakasleen eta proiektuaren ardura hartuko zuen begiraleaz gain, jantokiko begiraleei ere luzatu genien Donostian egin zen formakuntza ikastarora joateko gonbidapena. 1999ko azaroan, beraz, Arizko ikastolako lau lagunek hartu zuten parte Urtxintxak eskainitako saioretan. Asmo, ideia eta ilusioz beteriko bidaiak izan ziren Donostiarako joan-etorriak. Baina hurrengo urteko martxora arte ezin izan genuen praktikan ipintzen hasi, diru laguntzak ez baitira beti garaiz iristen.

Azkenik, esan bezala, martxoan ekin genion proiektuaren alderdi praktikoa. Euskaraz Mintzaren begiralea 12:30etik 14:30era bitartean hasi zen lanean, eta lehen bi asteak antolaketa arloa ondo zehazten pasa genituen: koordinazioa nola bideratu, jantokiko gainerako langileak nola inplikatu, egutegia nola zehaztu, baliabideak no-

la egituratu, material beharrak nola finantzatu, ikasleen aurrean nola aurkeztu, ebaluazioa nola planteatu...

Koordinazioari dagokionez, argi genuen Euskaraz Mintza proiektua, Euskaraz Bizi proiektua bezala, ezin zitekeela jantoki garaira soilik mugatu, esparru hezitzaile horrek lotura zuzena behar baitu gainerako ikastorduekin. Hori errealitate bilakatzeko, proiektuaren begiraleak eskola komunitatea osatzen duten guztiekin izan behar zuten komunikazio-hari egituratua:

- Irakasleari hileko plangintzaren berri emateko eta balizko jarduera komunak proposatzeko gunerik egokiena, urtetako esperientzia zuen Euskaraz Bizi Batzordea zela ondorioztatzen. Berau da proiektuaren lehen erreferentzia, eta bigarrena euskararen normalkuntzarako teknikaria. Hamabostean behin biltzen den batzorde hori zikloetako irakasle banak, teknikariak eta ikasburuak osatzen zuten une hartara arte; Euskaraz Mintza proiektua barneratzean, begirale eta guzti, lan esparrua zabaldu egiten zitzaion, erantzukizun berria bere gain hartuz.

- Jantoki Batzordea eta langileak ere ezin genitzakeen albo batera utzi. Izan ere, langile horiek elementu eraginkorra izan behar zuten proiektuan. Hau da, ardura zuzena zuen begiralearen gidaritzapean bazen ere, harekin batera aritu behar zuten jolasak irakasten eta bideratzen, materiala atontzen eta kon-

trolatzen, programazioan laguntzen... Beraz, Jantoki Batzordeak zenbait behar ekonomikoren aurrean erabakiak hartzeaz gain, ondo argi azaldu behar zien langile guztiei zein ziren beren betebeharrak, bai jatorduari zegozkionak, bai aisialdia edukiz bete eta euskalduntzeari zegozkionak ere.

- Familiengana heltzea neketsuago suertatu ohi zaigu sarritan. Izan ere, lehen ikasturtean Batzorde Iraunkorrek kideek, Eskola Kontseilukideek eta Jantoki Batzordekideek bakarrik jaso zuten proiektuari buruzko informazio zuzena. Jantokiko erabiltzaileak ziren familiek, berriz, beren seme-alabek begirale "berezi" batekin (Argitxuren lagun-mina txikienentzat) izandako bizi-penen berri bazuten, baina zeharkakoa: hauren komentarioak, jolastokiko solasaldiak...

Emaitzen aurrebalorazioa ekainean egin genuen. Goizegi zen, ezbairik gabe: proiektuak hiru hilabete besterik ez zituen. Hala ere, bikain etorri zitzaigun hutsuneak detektatzeko eta, batez ere, ikasleen artean Nora, "ondo pasatzeko begiralea", funtsezkoa zela frogatzeko.

Pasa den ikasturtean ildo beretik jo dugu proiektuaren antolaketa eta zehaztapenari dagokionez. Baina berrikuntzak ere egin ditugu:

- Udalaren lankidetzari esker, jolastokian hainbat eta hainbat irudi margotu genituen: lokotxetan aritzeko mar-



kak, lau bazterrak, iturriekin korri egiteko bidexkak... Aukera dibertigarriak eskura jarri besterik ez dugu egin, eta harrera oso ona izan dute.

- "Gurasoak euskaraz jolasten" ikastaroa antolatu genuen urtarrilean hasteko, proiektuak aurreikusten zuen esparru hori garatzen lehenak izan ginelarik. Bi talde osatu genituen: goizeko lehen orduan bata, eta arratsaldean, eskolak amaitu eta gero, bestea. Jolas eta kanta bildumatxoa ere prestatu genuen, euskaldunak edo erdaldunak izan, Euskaraz Mintzaren begiralearekin berarekin euskaraz jolasean ikas zezaten.

Idea eta istorio gehiago dugun arren, utzi egin behar zaituztegu hurrengo batera arte, bestela gu gabe hasiko baitira soka saltoan, iturrietan, goman, txaloka, kaniketetan, harrapaketan, zelai errean, lokotxetan, kromotan, botean, ezkutaketan... eta ez dugu galdu nahi!!!!



## Kanboko eskola publiko elebiduneko esperientzia

### Pantxoa Mitxelena

Kanboko eskola publikoko irakaslea

Gure eskola publikoetan euskara irakasteko bideak nolakoak diren analizatu ondoren, ohartu ginen ezin genuela Hegoaldeko moduan jokatu Euskaraz Mintza egitasmoa gauzatzeko garaietan. Iparraldeko ikastetxe publikoetan ikasleen kopuru batek baizik ez du euskara ikasten (elebidun sisteman daudenek) eta kasik ikasgelan soilik erabiltzen da euskara. Horregatik, erabaki genuen proiektua irakasleek zutela obratuko klase denboran, eta ez begiraleek klasetik kanpo.

Horretarako, irakasleen formakuntzarekin hasi ginen. 15 ikastetxeetako 19 irakaslek Urtxintxa Elkarteak animatutako formakuntzan hartu zuten parte hiru asteazken goizetan. Euskal joko zahar andana baten aurkitzeko parada ukan zuten, eta hizkuntzaren garrantzia azpimarratu zitzaizkien.

Geroztik, gure ikastetxean, Kanbon, ostiral goiz osoan hiru oren laurdenez 32 haur jolasten dira Maritxu eta Pantxo irakasleekin. Astero jolas berri bat aurkezten zaie, eta horrela, gaur egun, dantza eta abesti multzo bat gogoan dauzkate.

Ostiral arratsaldeetan, aro txarra denean kirola kanpoan egiteko, beste 22 ikasle handienekin gauza bera egiten da. Hizkuntzaren ikasteari lehentasuna

emaiten zaio eta joko batzuetan arauak aldatzen dira euskararen egitura batzuk erabilarazteko. Adibidez:

"Maite zaitut... ordularia duzulako/baituzu".

"Ez zaitut maite... ez baizira handia/ ez zirelako handia".

Ororen buru, haurrak gogotik sartu dira proiektuan dinamikoa eta alai delako, eta batzuetan ikusten ditugu haurrak jolas horietan lanarte denboran.





### Irakatsi aurretik, ikasi egin behar da



Edurne Larraza  
NUPeko irakaslea

Informatikaren presentzia abiadura handiz nabarmentzen joan da gizartearen arlo guztietan. Gaur egun ia lan eremu guztietan azaltzen da; geroz eta jende gehiagok erabiltzen du ordenagailua bere lanerako. Momentu batean etxeetan telebista ezinbesteko tresna bihurtu bazen, badirudi gauza bera gertatzen ari dela ordenagailuarekin. Lanaren esparruaz aparte, aisialdirako ere gero eta erabilpen handiagoa du. Beraz, biztanleriaren ehuneko handi batek jarri behar izan du bere burua noizbait ordenagailu edo ordenagailudun makina baten aurrean. Pertsona horiek informatikarekin inongo kontakturik izan ez badute, gogorra izan daiteke edo traba asko sortuz ditzake.


#### Hezkuntza eta informatika

Oraintxe arte behe mailako eta maila ertainetako hezkuntzan informatika zeharo baztertua egon da. Jende gutxi zegoen horrelako gaiak irakasteko trebatuta, eta trebatuta zeudenen artean, oso gutxi irakaskuntzan interesaturik.

Ildo honetatik, badirudi oso garrantzitsua dela informatika irakastea behe eta erdiko mailako hezkuntzan. Baina, nire ustez, adin gazte horietan, programatzen edo konputagailuaren barne egituraz edota sistema eragileei buruz jakitea baino garrantzitsuagoa, konputagailua lan tresna ahaltsua izan daitekeela ulertzea da. Eta haurrak horretaz jabe daitezenean, behar-beharrezkoa da euren irakasle, hezitzaile eta, kasu askotan, eredu diren maisu-maistrak hala erabiltzen dutela ikustea.

Horren inguruan, Alfonso Gutiérrezek honako hau dio:

*"Irakasleok, Teknologia Berriez ari garela, irakas-baliabideetara mugatzea da interpretazio sinpleena, eta behar bada gehien erabiltzen dena. Konputagailuak, proiektagailuak, bideoelkarreragileak, irakurle digitalak, multimedia..., sofistikuak edo diren baliabide horiei buruz zerbait irakurria dugu, eta, diotenez, hezkuntzan erabilgarriak dira. Berriz adjektiboak, kasu askotan, baliabide horiek oraindik ez erabiltzearen zergatia justifikatzeko balio izaten du, eta neurri batean, geure kontzientzia berritzailea lasaitzeko" (Gutiérrez A.).*



Beraz, jauzi nabarmena egin dugu haur eta gaztetxoek jakin behar dutenetik beren maisuek, ez informatikako maisuek, baizik eta denek, jakin behar dutenera.

Pina eta Sánchez-ekartikulu batean, informatika arloan espezializatuak ez diren ikasketetan informatika irakasteko hainbat curriculum joerei buruz hitz egiten digute. Joera hauen artean, batetik, informatikaren oinarriak, aldutuko ez diren arloak erakustearen aldekoak daude; eta bestetik, informatikaren arlo praktikoa jorratzea nahiago

dutenak. Lehenengoaren alde daudenak, aplikaziotik urrutiago eta kontzeptutik gertuago ibiliz, informatikaren oinarri horiek argi dituen pertsona batek edozein pakete instalatzen eta erabiltzen erraz ikasiko duela diote (Kelemen eta Patt). Bigarrenaren aldekoek, ordea, aplikazio zehatzak erakustearen alde jotzen dute, informatikaren alorrean espezializatu nahi ez duen jendea lehen aipatutako oinarriak jasota gustura geratzen ez delako (Sellars).

Horri guztiari jarraituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) Teknologia Berrien alorrean lan egiten dugun irakasleok bigarren adarretik jo dugu, ikasleentzat interesgarriak diren programak landuz konputagailuarekin hurremanetan jartzen direla pentsatuz eta pixkanaka oinarri horiek ere beren kabuz ikasiko dituztela ulertuz.

## Gure aukera

Hemendik aurrerako NUPeko Irakasle Eskolan informatika irakasteko dauden bi irakasgaien azalpena izango da, kontuan izanik egungo ikasleak etorkizuneko irakasleak izango direla, irakasgai hauek daukaten garrantzia eta balioa adieraziz.

Pina eta Sánchez-en artikuluan, oro

har, ikasle espainolek unibertsitatera iristean informatikarekin garrantzizko kontakturik ez dutela izan diote. Askok konputagailu bat piztu ere ez dute inoiz egin. Honek oinarriko kontzeptuen sarrera bat egin beharra dakar. Baina, hor egiten dena alde batera utziz, oso garrantzitsua iruditzen zaigu etorkizuneko irakasle hauek beren eskoletara iristen diren egunean, proposatzen zaien softwarea edo beraiek aurki dezaketena ebaluatzen jakitea. Horregatik, merkaturan dagoen produktu baten azterketa egitea eskatzen zaie, erabilgarritasuna, atsegina izatea eta horrelakoak aztertuz. Horretarako oso lagungarria izan daitekeen material asko lor daiteke sarean bertan (Cabero eta Duarte) eta (Marquès).

Hurrengo urratsa Interneten dagoenari aplikazio hezgarria ematea da. Internetetik lortzen den materiala batzuetan zuzenean erabiltzeko modukoa da, beste batzuetan, berriz, norberaren prestakuntza behar du, eta beste batzuetan informazio gisa besterik ez dio balioko irakasle bati. Baina atal honetan argi geratu behar dena da Internetetik laguntza handia jasotzeko aukera dagoela. Jarraian adibide batzuk ikus ditzakegu.


- Ibazar web orrian ([www.](http://www.)

[ibazar.es](http://www.ibazar.es)) produktu batzuk ageri dira enkantean. Etxetik, sarearen bidez, enkantean dauden produktuak erosteko edo saldu nahi dugun zerbait enkantean jartzeko aukera daukagu. Horrek, Historia irakasgaiko Ekonomiaren Oinarriak gaiaren barruan, egunerokoa ez den salerosketa modu bat praktikoki ikusteko balio dezake.

- Egunkariako Hemeroteca ([www.egunkaria.com/egun1999/sarrera.html](http://www.egunkaria.com/egun1999/sarrera.html)), adibidez, bai irakasleek eta bai ikasleek apunteak osatzeko eta lanak egiteko erabil dezaketen webgunea da.

Bi urrats horiek landu ondoren, Irakasle Eskolako ikasleek badakite lortzen duten material informatikoaren ebaluaketa egiten eta Interneti erabilgarritasuna aurkitzen. Beraz, beren klaseetarako egokia zer izan daitekeen eta zer ez bereizteko gai dira. Halaber, oraindik hutsune bat geratzen da: merkaturan edo Interneten behar dutena aurkitzen ez dutenean eman beharrekiko pausoa.

Kasu horretan eurek sortu beharko dute behar duten materiala. Multimedia materialaz ari gara, soinu, irudi, mugimendu eta bestelakoak dituztenak. Horien artean elkarreragileak eta elkarreragile ez direnak bereiziko ditugu.



1. irudia: a eta e bokalak irakasteko irudiak. Programan hitzak ahoskatzen dituen soinuarekin batera datoz.

Lehenengoan haurrak ez du parte-hartze aktiborik, ordenagailuarekin behintzat. Normalean aurkezpenak edota azalpenak egiteko erabiltzen da. Horrelakoak sortzeko "Kid Pix Studio" delakoa erabiltzen dugu. Programa ho-

nek marrazkiak egiteko hainbat aukera eskaintzen ditu, marrazki eta animazio ikusgarriekin eta soinuarekin. Honekin sor daitekeenaren adibide bat 1. irudian ikus dezakegun programa da, animalien bidez bokalak irakasteko balio

izan dezakeena.


Bigarrenean, elkarreragile ez denean, programaren aurrean dagoenak parte-hartze aktiboa izan behar du. Berak egindako aukeren arabera programak erakutsiko duena desberdina izango da.




1- Bokalak botoia sakatuta, programa hasten da.



2- Erdian hainbat animalien izenak agertzen joango dira eta pantailan nonbait animalien irudia..




3- Hitza pantailan zehar mugitu daiteke eta hitzaren lehenengo bokalari dagokion biribilera eraman behar da.



4- Aurreko kasuan bezala hitza bokal okerrera eramaten bada, pantaila hau agertzen da negarrez dagoen haurrarekin eta musika dramatiko batekin.



5- Kasu honetan, ordea, ongi egin da; beraz, ondorengo pantailara pasako da.



6- Egin beharrekoa ongi egin denez, eskuak agertzen dira txalo egiten eta txalo hotsak ere entzuten dira.

2. irudia: programaren pantaila desberdinak eta bere azalpena.




Horrelakoak egiteko "Macromedia Director" tresna erakusten zaie. Tresna horrekin elkarreragile ez diren aurkezpenak ere gara ditzakete, eta gainera, animazioak eurek sortu eta "Lingo" lengoia erabiliz osagaiek elkarrekintza onar dezaten programatu. Azken hitz honek, gehienetan, informatikaren erabiltzaile soila den jendeari beldur handia ematen dio. Baina lengoia horiek, autore lengoaiak deritzenak, hain zuzen ere jende horrentzat diseinaturik daude. Gauza politak sor daitezke programazioaz ezer gutxi jakin arren. Adibide gisa, 2.a eta 2.b irudietan azaltzen den programa ikus daiteke.

Sarean ageri diren Irakasle Eskoletako informazioa aztertuz gero, argi ikusten da informatikari oso denbora gutxi eskaintzen zaiola. Gehienek irakasgai bakarria daukate eta horren atal txiki bat besterik ez zaio ematen informatikari, beste guztia proiektagailu, diapositiba, bideo, zine eta bestelako ikus-entzunezko gailuek hartzen dutelarik. Ez dut esango nik horiei denbora gutxiago eskaini behar zaienik, baina bai informatikari, eta are gehiago, haien alderdi praktikoari, denbora gehiago eskaini beharko litzaiokeela. Gehienetan, irakaskuntza eskaintzetan, edukia oso teorikoa da; hezkuntzan informatika nola erabili beharko litzatekeen, softwarea eta hardwarea zer den, multimedia sistemak nola erabili daitezkeen... irakasten dute, eta praktikoek, Word eta PowerPointen erabilerara.

## Ondorioak

Ikusirik nolako abiadan aldatzen den informatika, oso posible da orain Irakasle Eskolan dauden ikasleak eskola batean lanean hasten direnerako gaur egungo Teknologia Berri guztiak zaharkituta gelditzea. Oso urrutira joan gabe, eskoletan "Director 6" bertsioa erabiltzen ari gara eta dagoeneko merkaturatua "Director 8" bertsioa dago salgai. Dena den, ni metodologia honen aldekoa naiz, pentsatzen dudalako orain hori ikasteko gai izan badira, horren berrikuntzak beren kabuz berenganatzeko gai izango direla, eta errazta-



2.b irudia: negar eta txaloen pantailan bi irudi hauek agertzen dira. Atea sakatuta programa bukatzen da. Bost bokalen koadroa sakatuta, txaloen pantailatik beste animalia batekin jolastera pasatzen gara, eta negarren pantailatik lehenengo animaliarekin jarraitzen dugu.

sun handiagoa izango dutela beste softwarearekin kontaktuan jartzeko ere. Gainera, irakasgaiaren edukien barruan, "Word", posta elektronikoa eta abar inplizituki agertu ez arren, horiek ere ikasten dituzte lan idatziak aurkeztu behar dituztelako, irakaslearekin kontaktuan jarri behar dutelako eta abar. Alderdi teorikotik jotzen denean, ordea, zer erabili eta nola aplikatu beharko litzatekeen oso ongi jakingo dute, baina ordenagailua behar adina erabili gabeak izango dira eta erabili nahi ezik jarraituko dute.

Amaitzeko, esan beharra dago, irakasle euskaldunek behintzat, sortze lan handia egin beharko dutela. Beste hizkuntzetan, jar dezagun adibide gisa katalana, jadanik nahiko garatua dago lan hori, baina euskaraz egiteko asko dago oraindik. Adibidez, haurrentzat Interneteko helbide asko dago, bai gaztelaniaz eta bai erdal hizkuntzetan. Aisialdirako helbideak eta helbide didaktikoak ere bai, baina euskaraz, nik behintzat, ez dut gauza askorik aurkitu. Adibidez,

Xingolan, (www.egunkaria.com/xingola), haurren aisialdirako jolas sinpleak eskaintzen dituzte. Puzzleak, erantzuteko galderak, erreportaje txikiak eta ipuintxoak eskaintzen dituen web orria da. Bestalde, hortxe daukagu, euskaraz dagoen banaketa libreko softwarearen zerrenda egiten saiatzen den [www.arrakis.es/~sortzen/freeware.htm](http://www.arrakis.es/~sortzen/freeware.htm) Interneteko helbidea. Baina oraingoz, "Zure Diabetesa Kontrolpean" programa eta "Klik" aplikaziorako (berez katalana

da) lotura ([www.xtec.es/recursos/clic](http://www.xtec.es/recursos/clic)) besterik ez du eskaintzen. Programa komertzialetan badago eskaintza gehiago; EIMA katalogoan [EIMA] eta Euskarazko Software katalogoan ([194.30.78.149/softkat/sarkat.htm](http://194.30.78.149/softkat/sarkat.htm)) software horri buruzko informazioa lor

## Bibliografia

- CABERO eta DUARTE: Evaluación de medios y materiales de enseñanza en soporte multimedia. *Pixel-Bit. Revista de Medios y Educación*, 13, 23-45.
- GUTIERREZ, A.: <http://www.uned.es/ntedu/espanol/master/primer/modulos/multimedia/magiste.htm>
- KELEMEN: Public Understanding of CS and First Courses for Non-majors. 1997.
- MARQUÉS: <http://www.xtec.es/~pmarques/edusoft.htm>
- PATT: First Courses and Fundamentals. Michigango Unibertsitatea. *IEEE computational science and engineering*, 1996ko uda, 46-65 eta 96ko udazkena 54-62.
- PINA eta SANCHEZ: "Consideraciones en la enseñanza de la Informática para estudios universitarios de Ciencias Sociales: propuestas de curriculum y metodología". *XIV Congreso de Estudios Vascos: Informazioaren Gizartea*. 299-305 or. 1998.
- SELLARS: Why a college course is computer literacy. *Sigcse Bulletin*, 20. alea, 2 zkia, 1988ko ekaina, 58-64.

## The Beatles euskaraz

Rock & Orff taldeak DBHn musika lantzeko material berria aurkeztu du euskaraz: The Beatles CD-ROMa



The Beatles CD-ROMak bi aurpegi dituela esan daiteke: musika konpaktua eta CD-ROMa. Lehenengoak taldearen lau kantu biltzen ditu: Day Tripper, The Long and Winding Road, Twist & Shout eta When I'm Sixty Four. Kantu horiek playback moduan erabiltzeko aukera dago, hau da, ikasleek hainbat bertsioen azpiko musika jo dezakete abiadura aldatuz, melodiarekin edo gabe... Bigarren aurpegiak, CD-ROMak, irakaslearentzat baliagarri diren hainbat eduki biltzen ditu:

- Abestien analisia: interpretatzaileari edo egileari buruzko informazioa eta analisi fitxa ditu, eta baita irakaslearentzako zein ikasleentzako musikogramak ere.

- Laguntza pedagogikoa: helburuei, edukiei, ekintzei, sekuentziarioei, denboralizazioari, prestaketarako ariteketei eta inprobisatzeko aholkuei buruzko proposamen irekiak egiten dira. Hori guztia Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako, Batxilergorako eta Musika Eskoletarako bereziki landurik aurkezten da.

- Entzuketak: abestia entzutearekin batera partitura osoak, murriztuak, partitxelak... ikusteko aukera ematen du, orri guztiak inprima daitezkeelarik.

- Midi sekuentziak: Midi sekuentziarekin lan egiteko aukera ematen duen programa baten proba biltzen da. Horrek nahi diren moldaketak egiteko aukera ematen du. Programa ezagu-

tzen ez dutenentzat erabilera argibideak jarrita daude.

- Glosarioa: instrumentuen alderdi teknikoari buruzko zenbait atal gehitzen dira (gitarrako akordeen jarrera, perkusioa eta bateria nola idatzi...). Alderdi orokorrari ere egiten zaio erreferentzia: musika moderno zifratua, terminologia espezifikoa...

Informazio hori guztia inprimatzeko moduan dago, guztia 467 orrialdeetan biltzen delarik.

### Materiala osatzeko hainbat arrazoi

Musika irakasle talde bat izan da lan honen egilea. Musika arloan eta gazteei begira sumatzen zuten hutsuneari erantzuteko asmoz sortu dute material motibagarri hau.

Celia Egea musika irakasle eta egile-etako batek dioskunez, *“LOGSEren ezarpenaren ondoren Bigarren Hezkuntzako irakasleok zailtasun ugariarekin egiten genuen topo Musika klaseak emateko garaian. Horregatik, zailtasun horiek gainditzeko, maila honetarako musika curriculumagaratzeko eta Bigarren Hezkuntzako irakasleok prestakuntza aldetik geneuzkan gabeziei aurre egiteko sortu dugu materiala”*.

Irakasle hauen esperientzia eta talde lana izan dira proiektuaren oinarri, eta emaitza Musikako irakasleentzako material pedagogiko berritzailea eta

erabilgarria izan da, bai institutuko irakasleentzat bai musika eskoletako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

Egeak azaltzen digunaren arabera irakasle egileak, BBBn eta Bigarren Hezkuntzan izan duten esperientziarekin, nerabeen klaseetan instrumentuen adierazpenak duen garrantziaz jabetu dira. *“Gure ustez, erraztasun, arrakasta eta motibazio handienarekin lantzen den eduki multzoa da. Alabaina, nerabeei kosta egin zaie abestea ahotsa aldatu egiten zaielako, lotsatu egiten direlako, aurretik prestakuntzarik ez dutela... Eta dantzatzerakoan ere lotsa sentitzen dute, ikastetxeetan ez dago leku egokirik... Zuzenean lantzeko eduki zailak dira, baina garatzea interesatzen zaigu. Hainbestean, interpretazio instrumentala lantzeak ekintza horiek guztiak aldi berean eta ia konturatu ere egin gabe lantzeko aukera ematen digu”.*

Hori guztia aurrera eramateko eta posible egiteko musika errepertorio motibagarria eta egokia edukitzea garrantzitsutzat jotzen dute egileek. *“Adin horretan gehienek musika “moderno” edo kontsumoko musika soilik entzuten dute. Horrekiko duten interesa beste musika motak ezagutzeko aprobeixatu behar dela uste dugu. Baina ez, orain arte bezala, haurrentzako abestien moldaketak erabiliz”* irizten dio Egeak. *“Horrez gain, ikasle hauek normalean musika-hizkuntza maila handirik ez daukate, eta horrek ere kezkatzen gintuen”.*

Kezka eta hutsune horiek guztiek bultzatu zuten irakasle talde hau erraza, erakargarria eta malgua izango zen materiala sortzera. Era berean, kontziente ziren irakasleen prestakuntza arazoak ere. *“Musika irakasle guztiok ez gatoz arlo beretik. Denok menperatzen ez ditugun instrumentuak daude, eta ikasleek jotzen dituztenak edo jo nahi dituztenak: bateria, gitarra elektrikoa, teklatura... Gainera, formazio klasikoak dugunok, normalean, ez daukagu ezagutza nahikorik abestiei ukitu modernoko moldaketak egiteko: reggae estiloa, saltsa, rock eta abar”.*



### Esperientzian oinarritutako talde lana da

Burlatako Musika Sortzailea Eskolako zuzendari Celia Egea eta Iruñeko Bigarren Hezkuntzako institutu bateko Musika irakasle Inma Martinez izan ziren proiektuarekin hasi zirenak. Hasi-rako urratsak beraien ikasleekin burutu zituzten. Aurretik aipatu ditugun kriterioak betetzen zituzten hainbat abesti aukeratu, musika sekuentziak eta partiturak egin eta zenbait ikasturtetan maila eta egoera ezberdinetako ikasleekin esperimentatu zuten. *“Eskolan orkestra bat sortu genuen eta hainbat musika jaialdi antolatu gintuen. Baina garrantzitsuena zera izan zen: ikasleen artean motibazio berezia sortu zela, eta irakasleek, gurasoek eta hezkuntza erakundeek gehiago estimatu zutela”.*

Ondoren, Lehen Hezkuntzan eta Musika Eskoletan ere lan egiten hasi ziren, eta beste bi irakaslerekin elkarlean abiatu ziren. Bata Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean Musika klaseak ematen dituen Pola Lazkoz zen, eta bestea Lekunberriko Musika Eskolako pedagogo eta irakasle Elena Aguilera. Bi irakasle hauen esku-hartzeak lana

osatu eta aberastu zuen, hainbat ikuspegitatik egindako proposamen osagarriak gehituz.

Besteak beste, materiala kaleratu aurretik maila ezberdinetako irakasleentzako lagin edo eredu bat prestatu zuten. *“Helburua zen hainbat musika maila, formazio eta arlotako irakasleek*

**Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta Musika Eskoletan erabiltzeko moduko materiala da**



klasean eredu hori erabiltzea eta beren esperientziari buruzko iritzia ematea. Eredu hori CD-ROM formatuan banatu genuen, ez ziren partitura batzuk soilik, horrez gain hainbat atal gehitu genituen: abestiak, gelan lantzeko playback-ak, musikogramak, irakasleentzako eranskinak, ikasleen prestakuntzarako ariketak, laguntza pedagogikoak eta Midiko sekuentzia moldaketak egin ahal izateko (ezagutzen ez zuten irakasleentzat argibideak jarririk). Egeak dioenez, ondoren hainbat inkesta eta elkarrizketa pertsonal egin zituzten irakasleen ekarpenak biltzeko.

## Klaseko esperientziaren ondorioak

Klasean egindako esperientzietatik bi ondorio nagusi atera dituzte:

1- Ikasleengan sortutako heziketa motibazioa eta aberastasuna: playback-a erabiltzeak izugarri errazten die ikasleei interpretatzen, ez die ezagutza maila handirik eskatzen eta horrek interpretatzeko orduan autonomia hartzen laguntzen die. Horrela, playback-aren laguntzarik gabe jotzen dute azkenerako. Musika aldetik aberastu egiten dira, kalitatezko musika entzuten ari diren heinean, konturatu gabe entzumena lantzen dutelako harmonikoki, erritmikoki, melodikoki eta beste hainbat alderditatik. Taldean jotzeko, beste gelakideei entzuteko, eta bere interpretazioa entzuten duenaren arabera modulatzeko gaitasuna garatzen dituzte. Segurtasun gehiago hartzen dute.

Beren ingurune musikaetik hurbil dauden moldaketak direnez, eroso eta jotzeko gogoz sentitzen dira.

Denentzako moduko zatiak daude, inor ez da bazterturik gelditzen asko dakielako edo gutxi dakielako.

Gelan denek ia zati guztiak lantzen dituztenez, ez dira aspertzen.

Beste gelakideen aurrean taldean jotzeak gustura sentiarazten ditu, eta behin jo ondoren, beti errepikatzen prest egoten dira.

Horrek beste hainbat ekintza burutzeko motibazioa pizten du. Beste egoera batean ez lukete egingo, baina ho-

relako prestakuntzaren ondoren jaialdi batean kantatzen, dantzatzen, aurkezten, antolatzen eta abar amaitzen dute.

Ikasleen artean gauzak ondo egiteko interesa sortzen da, gainditzeko nahia, autoebaluatzeko gaitasun handiagoa, taldean gehiago kolaboratzen da, autoestimua garatzen da eta norberaren eta besteen gaitasun musikalak onartzen dira.

Azken finean, Musika ikasgaiarekin maila pedagogiko-musikal ezberdinetan iritsi nahi diren helburuak lortzen dira, hots, kontzeptuzkoak, prozesuzkoak eta jarrerazkoak.

2- Irakasleen heziketa lanerako erraztasuna ekarri zuen: irakasleek material benetan osatua zela adierazi dute. Normalean irakasleek bildu, sailkatu eta egin behar izaten duten material ugari biltzen du. Esaterako, analisiarako fitxak, musikogramak eta ikasleentzako fitxa-musikogramak.

Erdi mailako irakasleentzako moduko alderdiak ere biltzen ditu: hainbat instrumenturekin jotzeko glosario teknikoa, harmonia modernoa, inprobisatzeko orientabide pedagogikoak...

Klaseak prestatzeko garaian denbora aurrezten laguntzen du.

Playback-ak, esaterako, haur bakoitzari indibidualki erantzuteko aukera ematen die. Klase gutxitan emaitza duinak lortzen dira eta denbora gehiago eskaini nahi bada, horretarako materiala eta aukerak ematen ditu: analisiak, musikogramak, partiturak...

Talde bakoitzari moldatutako sekuentziak sortzeko aukera ematen du Midik, eta baita beste hainbat alderdi lantzeko ere: dantza, musika hizkuntza, aho adierazpena, denbora musikan, heziketa erritmikoa, harmonikoa eta melodikoa... Oso erabilgarria da ikasleak motibatuzko.

Merkatuan antzeko materialik ez dagoenez, irakasleek berritzailea dela iritzi dute.

Azken finean, egileen ustea egiaztatua gelditu da: irakasleentzako material erabilgarria dela. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta Musika Eskoletan erabiltzeko moduko materiala osatu dute.

Euskarazko bertsioa orain kaleratu da, baina gaztelaniazkoa martxoaz geroztik merkatuan zen. Dena den, Rock & Orff-en lehen bilduma orain bi urte argitaratu zen, eta hark ere gelan lantzeko lau abesti biltzen zituen. Dena den, bilduma hori ez dute euskaratu oraindik.



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak

## azarroa

## Musika irakasle euskaldunen arteko komunikazioa erraztu du topaketak

“Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketak” aukera paregabea eskaini du oraingoan ere musikaren irakaskuntzan murgilduta dabilen irakasleak biltzeko. Urriaren 26an elkartu ziren Donostiako Herri Ametsa ikastolan. Euskal Kantuzaleen Elkarteak bigarren aldiz antolatu du topaketa eta balorazio positiboa egin du.

Aurtengo topaketaren izenburua “Baliabide didaktikoen inguruan” izan da. Gai hori ardatz harturik Antton Jauregi, Ana Etxeberria, Itziar Zamora eta Mixel Etxekopar musika irakasleek euren esperientzia eta lanak aurkeztu zizkieten parte hartu zuten beste irakasleei. Lauak ere eskarmentu handiko irakasleak dira eta haien esperientzia pedagogikoa era askotakoa da: alde batetik, norabide pertsonal ezberdinekoak dira; bestetik, Euskal Herriko

herrialde ezberdinetakoak dira; eta irakaskuntza mailari dagokionez, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan aritzen dira.

Topaketaren helburuetako bat musika irakasle euskaldunon etengabeko prestakuntza bultzatzea izan da, eta ildo horretan lanean jarraituko du Euskal Kantuzaleen Elkarteak. Era berean, euskaraz egindako material didaktikoa sustatzea, zabaltzea eta bideragarri egitea da beste xedeetako bat. Euskal kantu eta musika sustatze aldera honen erabilera normalizatzea bilatzen du, eta bide batez, euskal kulturaren aberastasunaren inguruko hausnarketa bultzatzen du.

Topaketaren bitartez musika irakasle euskaldunentzat komunikazio espazio bat sortu da eta euren arteko komunikazio bideak indartu ere bai.



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko NOLEGA atalak bideratutako hiru argitalpen berri kalean dirajada. Bata Sagastiberri 2001 da. Argitalpen honetan 2000-2001 ikasturteko Urruzuno Literatur Lehiaketan saritutako lanak biltzen dira. Bigarrena Barriola 2001 da, Barriola Deklamazio lehiaketako sarituen ahotsak biltzen dituen kasetea. Eta hirugarrena NOLEGAREN aurkezpen txostena da. Bertan NOLEGAK ikastetxeei egiten dizkien eskaintzak jasotzen dira. Argitalpen guztiek euskararen erabilera edota kalitatea areagotzea dute helburu.



# 0-3 Haurraren Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Mahaia eratu da

0-3 urteko haurren hezkuntza aldarrikatzeko eta defendatzeko xedez eratu berri da 0-3 Haurraren Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Mahaia. Eta pa horren ardura Hezkuntza Sailetik Lan eta Justizia Sailera pasatzeko as-

motan dabil Eusko Jaurlaritza, eta Mahaieko kideek ez dute ongi ikusten hairbat arrazoi tarteko. Hori dela eta, beheko manifestua sinatu dute erakunde hauek: Gipuzkoako Haur Eskolen koordinakundea, EHUko Irakasle

Eskola, EILAS, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, Adarra koordinakunde pedagogikoa, Hik Hasi, Infancia eta Aula aldizkariak eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Eskola Publikoetako Guraso Elkarteak.

## 0-3 Hezkuntzarako Defentsa Mahaiaren manifestua

Joandako 30 urteren buruan haur txikien heziketan mugitu diren talde asko izan dira haurren heziketarako eskubidea aldarrikatuz, beraietzako egitura egokiak landu eta administrazioari konpromiso zehatzak exigitzen aritu direnak.

Inongo zalantzarik gabe, ibilbide honen helmuga LOGSE Legea izan da maila handi batean. Alde batetik, haurra jaiotzen den une berberetik hezten dela onartzen duelako eta bestetik, haurtzarari buruzko ikusmolde pedagogiko berriei jarraikiz, haur txikiak jasotzen dituzten zentroak arautzen dituelako kalitatezko eskaintzak ziurtatzeko helburuarekin.

Gaur egun hezkuntza erreformaren azken unera iritsi garen honetan, administrazioak familiei laguntzak eskaintzeko aitzakian, filosofia eta ibilbide honekin guztiarekin puskatu nahi duela salatu behar da, heziketarako eskubidea unibertsala baztertzen baitu. Berriro ere LOGSE Legearen aurrean kokatzen gara 70. hamarkadako egoerara itzuliz; haurtzaindegiak, emakume haur zaintzaileak eta gisako formula baztertuak berreskuratzerara Lan Sailaren eskutik.

Mundu honetan dabilzanek, hezitzaile, pedagogia mugimendu, pedagogia berrikuntzako talde, unibertsitateko irakasle eta abar luze batek, aspaldidanik baztertu zituzten zaintzako formulak, eta bere ordez, azken

urteetako ikerketa lan, moldaketa curricular eta esperientzia zabalaren ondorioz, eredu pedagogiko egokiak eskaintzen zituzten eskola motak egituratu dituzte. Familia eta lan mundua ezkontzeko plagintzek ez dituzte begien bistatik galdu behar haurren behar eta eskubideak. Haurra jaiotzetik hezten da. Haurren heziketarako erantzukizuna ez da Lan Sailekoa, Hezkuntza Sailekoa baizik, gizartean sortzen diren premiei erantzutea, oro har, Administrazioarena den bezala.

Manifestu honen sinatzaileak honako hauek aldarrikatzen ditugu:

1.- Haur guztiak jaiotzetik dute heziketaren eskubidea.

2.- LOGSE Legeak agintzen duenaren arabera, Hezkuntza Sailak hel diezaiola Haur Hezkuntzako 0-3 eta 3-6 zikloetan duen erantzukizunari, hezkuntza etapa honek dituen ezauzgarrietarako egokituz.

3.- EAEko Haur Hezkuntza mapa burutzea, egun dauden haur eskolak eta esperientziak, eta sortutako kalitatezko diseinu curricularrak integratuz eta eskaera guztia asetuz.

4.- Eredu profesional bakar bat osatzea Hezkuntza Saileko profesionalen lan baldintza berberekin, haurren dignitate, eskubide eta behar guztiak babesten dituen, haurra izanik heziketa lanaren ardatz eta helburu.



# Argitalpenak



## Euskal Autonomia Erkidego-ko biztanle-entitateak

Euskaltzaindia, EUDEL eta Eusko Jaurlaritzak

Lan honen abiapuntua 1986an argitaratutako Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak izendegia izan da. Oraingoan, izendegi hartan jasotzen ziren zenbait datu berriak eta eguneratu egin dira. Horrezaz gainera, herri/auzo bakoitzeko herritarren erreferentzia egiteko Euskaltzaindiak proposatzen dituen izenak ere jasotzen dira •



## Kofi itsasora bidean

Javier Cillero  
Aizkorri

*Mendi sorgindua saileko liburu hau 8 urtetik aurrerako haurrei zuzendua dago. Afrikako herri batean bizi den Kofi mutikoaren istorioak ditu ardatz. Europako lehengusu batzuk bisitan joan zitzaizkionetik Europa ezagutzeko amorratzen dago. Egun batean, sardinak ekarri dituen kamioi batean sartzen da Europara joateko asmoz eta orduan hastendira bere abenturak •*



## Bermeo basatia

Paul Henri Capdevielle  
Txalaparta

Autore frantsesak 1922an idatzi zuen liburuaren itzulpena dugu hau. 1912an ekaitz izugarri batek hondamen ikaragarria ekarri zuen euskal kostaldeko herri batzuetara, bereziki Ondarroara. Ekaitz haren tragedia, sasoi hartako giroa eta euskal kostaldeko herri bateko eguneroko bizimodua agertzen zaizkigu. Amodioa, klaseen arteko diferentzia, hildako biziak eta, oro har, itsasoa dira ardatz. •



## Jeremiah, fusila urpean

Herman


Jean François Sauré  
*Argitaletxe berri honek gazteentzako euskarazko komikiak argitaratzen ditu. Liburu hau egile alemaniar ospetsu baten itzulpena da. Gaiaren aldetik gazteei zuzendutakoa da, eta ilustrazioak ere ondo zainduta daude. Gure artean arrakasta gehiegirik ez duen generoari bultzada berri bat emango dion kalitateko lana da •*



## Grafomotrizitatea, margotu eta idatzi

Irune Ibarra  
Ibaizabal

Ikasmaterial hau 4 urteko haurrei zuzendua dago. Idazten ikasten laguntzeko materiala da. Letrak marrazki bidez irakasten dira, marrazki bakoitzean hiru edo lau jardura proposatzen direlarik. Lehen biak eskuaren norabide lantzeko, hirugarrena sormena lantzeko eta azkenekoa mozketak proposamenak •



## Animaliak

Gazteentzako Entziklopedia Ilustratua  
Ttartalo  
995 pezeta

Gazteentzako Entziklopedia hainbat gai jasotzen duten liburuk osatzen dute. Hau animaliei buruz ari da: intsektu, arrain, anfibio, narrasti eta ugaztun ugarriri buruzko datuak eta informazioa jasotzen ditu. Hori dena 200 irudi bikain baino gehiagorekin hornitzen du.



# Hik Hasiren Zatoz jolastera! bideoak Migel Altzo ikasmaterialen kalitate saria jaso du

Euskarazko ikasmaterialen kalitatea saritzeko Isaac Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo lehiaketan sari bana-keta egin zen urriaren 17an Tolosan. Migel Altzo sari-lehiaketako bideo alorrean aipamen berezia jaso du hik hasiren "Zatoz jolastera!" bideoak. Sari honek bideoari profesionaltasun onaren maila-aitorpena ematen dio.

"Zatoz jolastera!"k jasotako Migel Altzo sari-lehiaketan aurtengo ikus-entzunezko ikasmaterial eta hezkuntza software hoberenak saritu dira. Izan ere, sari-lehiaketa honetan unibertsitatez kanpoko ikasmaterialetarako euskarazko ikus-entzunezko ikasmaterial eta hezkuntza software hoberenak saritzen dira.

2001eko deialdian bideoaren alorrean bideorik hoberenaren saria Ihardun Multimedia Koop. E-ren "Ariete hidraulikoa" izeneko bideoak jaso du. Audio alorrean audiorik hoberenaren saria Ibaizabal argitaletxearen "Euskara eta literatura DBH 2. A erdua. Entzungaiak" kaseteak eraman du. Hezkuntza softwarearen alorrean software arruntik hoberenaren saria hutsik gelditu da eta epaimahaiak aipamen berezia egitea erabaki du; Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen "TTantto" multimedia softwarearik egin diote aipamen berezi hori. Bestalde, multimedia softwareari hoberenaren saria Elhuyar Kultur Elkar-tearen "Piratekin matematikaren munduan" materialak eraman du.

Migel Altzo sari-lehiaketaz gain, Isaac Lopez-Mendizabal lehiaketako sariak ere banatu dira. Kasu honetan, irakasmaita ez-unibertsitarioko euskarazko ikasliburu hoberenak saritzen dira. Aurten euskaraz irakasteko testu libururik hoberenaren saria Zubia argitaletxearen Inguruaren eza-guera, LMH 1. Ikaslearen liburua" ma-



Goian Migel Altzo eta Isaac Lopez-Mendizabal lehiaketetako sarituak. Behean hik hasiko kideak bideoa egiten partaide nagusiak izan ziren "Takolo, Pirritx eta Porrotx" taldeko kideekin.

terialak jaso du. Euskara irakasteko testu libururik hobereña Ibaizabal-Edelvives argitaletxearen "Euskara eta literatura A erdua, DBH 2. Ikaslearen liburua" k jasotako du. Hirugarren saria irakaslearen gidalibururik hoberenari eman diote, eta hori Anaya argitaletxearen "Matematika gizarte zientziei

aplikatua I, Batxilergoa 1. Proposamen didaktikoa" izan da. Oinarrizko irakurgaietan Elkarlanean argitaletxearen "Axa mixta zilarra" liburuak jaso du. Eta azkenik, kontsulta liburuen eta material osagarrien artean hobereña Erein argitaletxearen "Literatura unibertsala, Batxilergoa 1." izan da.



## Psikomotrizitate praktikako V. jardunaldiak Gasteizen

Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak antolatuta "Psikomotrizitate praktikako V. jardunaldiak" ospatuko dira azaroaren 9, 10 eta 11an. Gasteizko Europa Jauregian hiru egun horietan bi hizlari arituko dira. Bata Myrtha Hebe Buenos Aireseko (Argentina) Psikomotrizitate Eskola zuzendaria, AsEEFoPko hezitzailea eta "Fundari"ko zuzendaria. Eta bestea Bernad Acouturier Psikomotrizitate Praktika-ren sortzailea eta AsEEFoPko lehendakari-fundatzailea.

Besteak beste gai hauek jorratuko dituzte: "Autonomiaren kontzeptua

Haur Garapenaren Arreta Goiztiarrean. Teoriaren eta praktikaren arteko koherentzia", "Zailtasunak dituen harrarentzako laguntza berezia. Laguntza Psikomotorea", "Arreta mailen garapen haurtxoetan", "Jarraitibideak. Markoa. Estrategiak eta Metodologia Laguntza Psikomotorean".

### Informazio gehiagorako:

UNED Psikomotrizitate Eskola  
S. Martin de Aguirre plaza z/g  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 90 33  
Faxa: 943 76 27 21

## FERE-EIFeren jardunaldiak Gasteizen ospatuko dira hilaren 16 eta 17an

Euskadiko Elizaren Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen IV. Kongresua azaroaren 16 eta 17an burutuko da Gasteizko Europa Jauregian. "Heziketa eta etika aniztasunezko gizartearen" izenburupean baliabide berriak egoera berrietarako nola egoki daitezkeen aztertuko da.

### Egitaraua

#### Azaroaren 16an, arratsaldean:

*"Etika ikuspuntutik gizartearen ikuspegi orokor bat"*

16:00-16:30 Ekitaldiaren hasiera

16:30-17:1 *"Baliabide berriak egoera berrietarako"*. Xabier Etxeberria Mauleón, Filosofian Doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Etika Gelaren Zuzendaria.

17:15-18:00 *"Errealitatearen begirada laikoa"*. Javier Sádaba, Etikako eta Erligioaren Filosofiko Katedraduna Madrileko Unibertsitate Autonomoan.

18:00-18:30 Atsedena

18:30-19:15 *"Errealitatearen begirada fededuna"*. Carlos Díaz, Filosofoa, humanista eta pedagogo.

19:30-20:30 HIZLARIEKIN MAHAI INGURUA

#### Azaroaren 17an, goizean:

*"Pertsona, etikaren subjektu"*

10:00-11:00 *"Hiritarraren etika"*. Emilio Martínez Navarro, Etika eta Filosofia Politikoko Irakasle Titularra Murtziako Unibertsitatean

11:00-11:30 Atsedena

11:30-12:30 *"Hiritar kristauaren etika"*. José María Setién Alberro, Goetzaina.

12:45-13:45 HIZLARIEKIN MAHAI INGURUA

#### Azaroaren 17an, arratsaldean:

*"Errealitatearen argitasuna kristau-ikuspegitik"*

16:00-17:00 *"Sexu-antropologiak aniztasunezko gizartearen: kristau pro-*

*posamena"*. Eduardo López Azpitarte, Granadako Teologia Fakultateko Irakaslea

17:10-18:15 *"Boterea-politika-biolentzia"*. Imanol Zubero, Soziologiako Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean

18:15-18:45 Atsedena


18:45-19:45 HIZLARIEKIN MAHAI INGURUA

19:45-20:15 AMAIERA

### Izena emateko eta informazio gehiagorako:

Kongresuko Idazkaritza Teknikoa  
EIFE – FERE Euskadi  
Santesteban Musikaria, 3 – 2ª A  
20.011 – DONOSTIA  
Tf. 943 445 688 Fax: 943 445 234  
E-mail: jornadas.eke@planalfa.es

Matrikula: 6.000 pezeta



UEUko Sexologia sailak antolatu duen ikastaroa da "Sexologia euskal eskola". Ikastaroaren asmoa, gai honen inguruan dagoen formazio hutsunea betetzeaz gain, sexualitatea hobeto ezagutzen hastea da, betiere ikuspegi profesional eta zientifiko batetik abiatuta. Era berean, gaur egun sexologiaren ekarpenak euskaraz osatu, sistematizatu eta plazaratu nahi ditu.

Ikastaroa jendakiaren sexualitatea eta bereziki sexologiaren inguruan sakontzeko interesa adierazten duten profesional eta ikasle orori zuzendua dago.

Egitarauari dagokionez 10 gai landuko dira:

1. Zientzia sexologikoa. Giza Izate Sexuala
2. Sexologiaren historia
3. Sexologiatik azterketa **soziologikoa**
4. Sexologiatik azterketa **antropologikoa**
5. GIS-aren aurrean irudikatzen diren **jarrerak**
6. Gizakiaren sexu erantzuna
7. Aberastasun pertsonala
8. Pertsonaren sexu garapena bizi-tzan zehar. Ezaugarriak
9. Sexu hazkuntza
10. Practicum-a

Ikastaroa datorren urtarriletik abendura bitartean egingo da UEUren Eibarko Ikastetxe Nagusian (Markeskoa). Egutegi zehatza honakoa da: urtarrilak 12-26; otsailak 23; martxoak 9-

23; apirilak 20; maiatzak 11-25; ekainak 15; irailak 14-28; urriak 5-19; azaroak 16 eta abenduak 14. Orduetgia 9:30etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:00etara izango da, 7 ordu egun bakoitzean. Guztira 105 ordu teoriko-praktiko izango dira, gehi practicum gauzatzen norberak eskainiko dizkionak. Prezioa 100.000 pezeta (600 euro) izango da eta UEUkideentzat 85.000 pezeta (510 euro). **Izena emateko epea azaroaren 23an** amaitzen da.

#### Informazio gehiagorako:

UEUko Ikastetxe Nagusia  
Otaola hiribidea 1.  
20600 Eibar  
Tel.: 943 82 14 26  
Faxa: 943 82 06 16  
E-posta: markeskoa@ueu.org

## Hiri hezitzailea



### HHezkuntza eta borondatezko langintzako jardunaldiak

Donostiako Udaleko Heziketa, Gazteria, Lankidetzeta eta Tolerantzia Sailak heziketaren inguruan eztabaidarako eta gogoetarako sortu duen jardunaldia dugu hau. Jardunaldiaren barruan bi ikastaro antolatu ditu, eta lehenengoa azaroaren 16 eta 17an egingo da. Izenburua "Heziketa, pantailak eta indarkeria" izango da, eta egitaraua honako hau:

#### Azaroak 16

17:15 – 17:30 Inaugurazioa Arritxu Marañon zinegotziaren eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoren eskutik.

17:30 – 17:45 Komunikazioa

17:45 – 19:00 Hasierako hitzaldia Ignacio Ramonet-ek: "Hezkuntzaren desafioak globalizazio garaian".

19:00 – 19:30 Atsedenaldia

19:30 – 20:30 Lehenengo hitzaldia: Tebibista, indarkeriazko munduaren pantaila". Joaquim Carbonell, Cometa elkartearen kidea.

#### Azaroak 17

10:00 – 11:00 Bigarren hitzaldia: "Pantailak: lehiatila handia". Jose Antonio Gabelas, Cometako kidea.

11:00 – 12:00 Hirugarren hitzaldia: "Zinea: hiltzeko lizentzia". Carlos Gur-

pegi, Cometako kidea.

12:00 – 12:30 Atsedenaldia

12:30 – 13:30 Taldekako tailerrak: galdera klabeak.

13:30 – 14:30 Asanblada: balorazio orokorrak eta iniziatibak

14:30 – 15:00 Ziurtagirien banaketa eta amaiera.

Lekua: azaroaren 16an Donostiako Udaleko Pleno aretoan, eta azaroaren 17an Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko areto nagusian.

#### Informazio gehiagorako:

Donostiako Udala (Palazio Goikoa)  
Mari kalea, 1  
20003 Donostia  
Tel.: 943 48 11 22 / 619 31 22 08  
Faxa: 943 45 75 05  
E-posta: annita@euskalnet.net

# historiak zertzeladak

## Mikelete postuetako eskolak

Mikeleteen eskolez mintzatzen hasi baino lehen, geure burua kokatzea komeni zaigu. Eskola hauek 1924-36 urte bitartean egon ziren martxan Gipuzkoako mikeleteen ardurapean.

Mikeleteak Lehen Karlistadaren ondoren Gipuzkoako Diputazioak eta Bazar Nagusiek sortu zuten arma erakundeko kideak ziren. Foru polizien antzekoak ziren. Bizkaiko foru poliziei erizen bera jarri zitzaion hasieran, baina 1877tik aurrera *miñoi* izena hartu zuten. II. Gerra Karlistadaren garaian, 1872an, liberalen aldeko mikeleteen armada taldea sortu zen. 1937ko ekainean desagerrarazi zituzten agintari frankistek Gipuzkoako mikeleteak eta Bizkaiko miñoiak, Errepublikaren alde borrokatu zirelako.

Mikeleteen eskolak martxan egon ziren garaian (1924-36) aldaketa politikoko ugari bizi izan ziren. 1923-30 urteak Primo de Riveraren diktadura erregimenaren urteak izan ziren. 1930ean udal hauteskundeak egin ziren eta errepublikarrek gehiengo handiz irabazi zuten. Ondorioz, 1931n II. Errepublika aldarrikatu zen eta konstituzio progresista ezarri zen. 1932an Kataluniak autonomia estatutuak lortu zuen. 1933an eskuineko alderdiek irabazi zituzten hauteskundeak. Hurrengo urteetan tirabira eta altxamendu ugari izan ziren, hala nola Asturiaseko meatzarien matxinada eta Kataluniako Gobernuak egindako Kataluniako Errepublikaren aldarrikapena. Gobernuak, arma-

Joxe Fernando Garmendia  
Ikasberri ikastolako irakaslea



daren laguntzaz, bi altxamenduak zapaldu zituen. 1936ko hauteskundeak ezkerreko alderdiek irabazi zituzten Herri-Frontea izeneko koalizioan bildurik. Hatik, armadako kontserbadore eta monarkikoek altxamendu militarra bultzatu zuten Franco jenerala buru zutela. Ondoren, mikeleteak desagerraztearekin batera, mikeleteen eskolen ibilbidea ere bertan behera gelditu zen.

### Mikeleteen eginkizunak

Mikeleteak beti lotu izan ditugu zaintza eta ordenu publikoarekin, baina hori

ez zen izan haien eginkizun bakarra. 1796an osatu zen mikelete-taldea, probintziak ordainduta, gaizkileei aurre egiteko. Probintziako ordenu publikoa zaintzeko sortua izan arren, XIX. mendean aldaketa anitz izan zituen talde honek. Mende honen bukaeratik 1936ra bitartean, ordenu publikoaren zaintza eta jagole lanak ez ezik, aldundiak ezarritako eginkizun administratibo ugari bete zituen: zerga-biltzaile, aldundiari zegozkion zeharkako zergak bilduz; postari, korrespondentzia ofiziala banatuz; eta Aurrezki Kutxa Probintzialaren kutxa-laguntzaile gisa, 1924an 37 bulego mikeleteen ardurapean egon ziren.

Hezkuntza arloan ere aritu ziren, beren postuetan eskolak antolatuz eta oinarritzko heziketa emanez. Kontuan hartzea da mikeleteek kuartel nagusian administrazio lanetarako prestatzeko eskola berezia zutela, eta bertan jasotzen zutela heziketa eta formazioa.

Ez dugu ahaztu behar XX. mende hasieran hiri eta herri guneeetan eskolen eskaintza zabala izan arren (eskola publiko-nazionalak, udal eskolak, eskola partikularrak, pribatu eta erlijiosoak...), herrietatik urrun zeuden auzoetan ez zela



horrelakorik gertatzen. Horietan eskaintza urria zen eta horri aurre egiteko auzo-eta biztanleek, gehienetan auzoko haurren gurasoek, beren eskuetan zituzten irtenbideak proposatu eta bideratzen zituzten. Aukera horietako bat mikeleteek zuzenduriko eskolak izan ziren.

### Mikeleteen eskolen sorrera eta garapena

1924an Gipuzkoako mikeleteen kargu gorenak, Felix Churruca teniente koronelak, adierazi zuen hainbat herritako gurasoek mikeleteen postuetara hurbildu eta zera eskatu zutela: mikeleteek zuten denbora librean auzoan heziketarik gabe gelditzen ziren haurrei oinarritzko irakaskuntza irakastea mikeleteen etxeetan. Eskakizuna arrazoitzen zen esanez, baserriak herritik eta eskoletatik urrun egonik, mikeleteen postua zela lekurik hurbilena eta aukera bakarra haur horiek alfabetatu eta eskolatzeko.

Mikelete eskolak martxan jartzen aitzindari izan ziren Kanpazarreko postua (Arrasaten, Gipuzkoa eta Arabako mugan) eta Urkarregikoa (Elgoibarren, Gipuzkoa eta Bizkaiko mugan).

Aurrekari horiek kontuan izanik, Gipuzkoako mikeleteek Aldundiari zera proposatu zioten: mikeleteek zuzenduriko 14 eskolen proiektua bultzatzea. Eskola horiek, noski, mikeleteen postuetan kokatuta egotea proposatzen zuten. Proiektu horretan adierazten zen haurrei emaniko eskolaz aparte, gau eskolak eta igandetako eskolak ere emango zirela, eta batez beste 448 haur eta heldu hezteko modua egingo zela. Alabaina, asmo horiek aurrera eramateko beharrezkoa zen eskola doan izatea, garai hartan pobrezia handia baitzen eta dirua urri. Mikeleteen lana ere ordaindu beharra zegoenez, komenigarria ikusten zen hauek aldundiaren diru laguntza izatea. Era horretan, mikeleteek beste diru iturri bat ziurtatzen zuten. Ordainketa horrez gain, eskolarako materiala eta gelaren mantenua ere aldundiaren ardurapean egotea eskatzen zen.

Eskola martxan jartzeko beharrezkoa zen Aldundiko arkitektuaren onespena jasotzea, eraikuntzaren eta lekuaren baldintzak aztertu ondoren hark ematen baitzuen baimena.



1924ko irailaren 18an Aldundiko ordezkariak proiektuak goraiatu eta mikeleteen arduraduna zen Churruca jauna zoriondu zuten, baina proposamenak ez zuten aurreikusitako hedapenik izan.

1927an mikeleteek zuzenduriko bost landa eskola zeuden martxan: Kanpazarrekoa, 26 haurrekin (14 mutil eta 12 neska); Urkarregikoa, 26 haurrekin (12 mutil eta 14 neska); Endarlatzakoa, Irunen, 25 haurrekin (17 mutil eta 8 neska); Otzaurtekoa, Zegaman, 32 haurrekin (24 mutil eta 8 neska) eta Saturrarangoa, Deban, 36 haurrekin (28 mutil eta 8 neska). Guztira 145 ikasle joan ziren urte hartan eskola horietara. Ikasleen adina 5 eta 13 urte bitartekoa izaten zen. Aldundiak mikelete arduradunari, hots, bertako kabo komandanteari, urteko 500 pezetako ordaina ematen zion.

1928an aipaturiko bost eskola horiez aparte beste eskola bat ere ireki zen Urton, Berastegi herrian, Nafarroako mugan. Eskola honen sorrerari buruz dakiguna Tolosako komandanteak adierazi zuena da: Urto inguruko baserritarrek Urto mikelete postuan eskola ematea eskatzen zutela eta mikeleteek zuzenduriko eskola hau martxan jarri ondoren, inguruko 20-25 haurren heziketaz postuko kabo komandantea arduratuko zela, bere emaztearen laguntzaz.

Lehen esan bezala, hasierako plangintzak handiagoak izan arren, 14 eskola martxan jartzea lortu zen. Guztira 6 landa eskola izan ziren mikeleteen ardurapean egon zire-

nak.

### Eskola hauetan honako testu liburu eta materiala izan zen erabiliena:

- Koadernoak: ingeles hizkikoak (*Vallici ergo*) eta marradunak.

- Gaztelania ikasteko liburuak: *Delicias infantiles*, *Guia del Artesano*, *Gramática castellana*, *Silabarios Fernandez eta Silabarios Aroca*, *Caton de Seijas* eta *Catecismo Astete*.

- Aritmetika lantzeko *Villar* liburua erabiltzen zen.

- Gela guztietan zeuden Espainiako mapa - *Colin* - eta Gipuzkoako mapa.

Euskaraz, dotrina irakasten zen.

Gela apaintzeko gurutze santua, Erregearen koadroa, munduko esferak... jartzen zituzten.

Material hau aldundiak oparitzen zuen, eta baita ikasle bakoitzak erabiltzen zituen arbela, klariona, koaderno eta abar ere. Liburuak eskolan egoten ziren eta ikasle guztiek erabiltzen zituzten. Joaquin Munoz Baroja, Donostian 1812an sorturiko liburu-denda, zen material hauek eskoletara banatzen zituena.

Gehienetan eskola emateko lekuak egokitua beharra zegoen eta horretarako ezinbestekoa izaten zen aldaketak egitea: aireztapen eta argitasun baldintzak hobetu, berogailu sistema jarri eta beharrezko materialez hornitu: mahai bipertsonalak (garai hartan mahai bakoitzak 40-45 pezeta balio izaten zuen), arbela... Lehen esan bezala, hau dena aldundia-

ren ardurapean zegoen.

## Mikeleteen eskoletako heziketa

Eskola hauetako heziketaren informazioa jasotzeko bi bide urratu ditugu; bertan ikasle izandakoek emandako datuak eta Aldundiko ikuskaritzak jasotako txostenetan dagoena. Eskola hauen hasierako urteei buruzko datu gutxi dugu. Ez dugu ahaztu behar aipatzen ari garen proiektua eta garaia Liga Monarquica eta Primo de Riveraren garaian kokatzen direla, eta horiek euskararen aldeko jarre-  
rak geldiarazi egin zituztela, euskararen erabilera espreski debekatuz.

II. Errepublikaren garaian diru laguntzak ugaritu egin ziren eta horrekin batera jarraipen zuzena egin zitzairen. Horrela, Hezkuntza Komisioaren izenean, Cortazar jaunak eskola hauek bisitatu zituen, eta hauei buruz dauden datuak bildu zituen. Ez dugu ahaztu behar eskola hauek Aldundiaren diru laguntzari esker mantentzen zirela (materialerako diru laguntza, eraikuntzaren mantenua eta urtero maisu mikeleteari diru ordaina).

Personalki bisitatu ondoren, honela deskribatu zituen Cortazar jaunak eskola bakoitza eta bertako heziketa:

- Kanpazar: 1932an 12 ikasle zituen eta asistentzia ona zela esaten zuen. Ikasleek oinarrizko heziketa jasotzen zuten. 1934an eraikuntza berri egin zuten eta eskola ere bai. 1935ean eskolako heziketa hobetu nahirik, gurasoek tituludun maistra bat ezartzea proposatu zuten. Aldaketa arrazoitzen zuten esanez hezkuntzaren ardura zuten kabo mikeleteak aldatu egiten zirela, eta batzuetan ez zeudela behar bezala prestatuak.

- Endarlatza: 1932an 36 ikasle zituen matrikulatuta eta heziketa ona zen. Eraikuntza baldintza onetan zegoen.

- Otzaurte: 1932an 12 ikasle zituen matrikulatuta eta gehienak joaten ziren eskolara. Gela zabala eta ondo aireztatua zuen. Heziketa ona zen eta eskolako ordutegia 9:00etatik 11:00etara eta 14:00etatik 16:00etara zen.

- Saturraran: 1932an bisitatu zuenean 3 edo 4 ikasle zituen. Mikelete kaboa eta haren emaztea arduratzen ziren heziketaz, eta hori ez zela oso egokia zioen ikuskariak. 1932an izandako elgorri eta kukutxeztul izurriteen eraginez, eskolai-

txita egon zen.

- Urkarregi: 1932an 12 ikasle zituen matrikulatuta, baina 10 bat joaten ziren. Irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz ematen zen. Neguan gau eskola egoten zen mutil nagusientzat. Heziketa ona zela zioen ikuskariak.

- Urto: 1931. urtean jaso zuen bertako maisuak aurreneko aldiz Aldundiaren 500 pezetako diru ordaina. 1932an 26 ikasle zituen matrikulatuta. Bertan ematen zen oinarrizko heziketa ona zela zioen ikuskariak.

Urtoko mikelete eskolako ikasle izandako Berastegiko Joxe Antonio Aranburuk, egun desagertuta dagoen eskolaz eta bertako heziketaz honela dio:

“Urtoko mikeleteen postua Nafarroako muga bertan zegoen eta mikeleteak bertan bizi ziren bere familiarekin. Eskola mikelete etxearen ganbaran zegoen kokatua, eta eskola mistoa izanik, neskak eskolaren alde batean eta mutilak bestean kokatzen giren. Sarrera goizeko 9:00etan izaten zen eta 11:00ean irteera. Arratsaldeko saioa 14:00etatik 16:00etara izaten zen.

Eskola ematen zuen mikeleteak, maisuak, kabo kargua zuen eta Lezon jaioa zen. Bere arduragatik ezin zuenean eskolarik eman, bere emaztea edo alaba izaten ziren maistra lana betetzen zutenak. Hirurak eskola handikoak omen ziren”.

Egunero, eskolan sartu ondoren, maisuak adierazten omen zion bakoitzari zer ikasi behar zuen, eta esandakoa ikasten ez bazuten, etxerako orduan ikasten gelditu behar izaten zuten, ikasi arte.

“Egunero euskarazko dotrina eta gaztelaniazko Urbanidad, Caton eta Ortografia liburuak erreparatzen ziren. Horiek ikasi ondoren problemak eta aritmetika egiten ziren (batuketak, kenketak eta biderketak, eta zekizkienak zatiketak ere bai). Etxerako ordua iristen zenean errezoak egiten ziren kantari, bai goizean eta baita arratsaldean ere”. Ez dugu ahaztu behar erlijioak indar handia zuela eta dotrina buruz ikasi beharra izaten zela. “Dotrina zaharra” zen garai hartan erabiltzen zutena (96 orriko liburuxka txikia) eta ia denek euskaraz ikasten zuten.

Euskara-gaztelania hiztegia ere erabiltzen zuten, gaztelaniazko hitzen esa-

nahia ikasteko. Dena dela, azpimarratu behar da eskolako gaiak, oro har, gaztelaniaz ematen zirela, eta azalpenak euskaraz. Ikasgaiak gaztelaniaz eman arren, maisua eta ikasleak euskaraz mintzatzen ziren eta ez zuten debekatzen eskolan euskaraz aritzea.

Egindako lanaren jarraipena eta kontrola ikuskariak egiten zuen, baina oso azaletik, “koadernoak ikusi eta ospa egiten omen zuten”.

Ikasleen asistentzia ona izaten omen zen. Etxean haur gutxi gelditzen omen zen eta eskola etortzen ez zenak bere falta arrazoitu egin beharra izaten zuen. Bestela, gurasoei adierazten zitzairen. Normalean etxe bakoitzetik bi edo hiru anai-arreba joaten zirenez, kontrola ematea errazagoa izaten zen.

Ikasleen baserriak urrutiko egon arren, beren etxeetara joaten ziren bazkaltzera. Oraindik ez ziren kantinak martxan jarri landa eskoletan, auzo eskoletan jarriko ziren eran.

12-13 urterekin gehienak eskola utzi eta lanean hasten ziren. Kasu berezi batzuetan helduak ere joaten omen ziren eskola hauetara oinarrizko ikasketak ikastera (oinarrizko lau arauak eta idazten eta irakurtzen ikastea beharrezkoa baitzen zenbait lanbidetan, adibidez, mikelete sartu nahi izanez gero).

Mikelete eskoletako heziketak antzekotasun handia zuen landa eskoletako heziketarekin. Programa maisuak berak eta eskuartean zituen liburuek mugatzen zuten. Oinarrizko heziketa eta dotrina ziren eguneroko lanaren zutabe. Dena dela, eskola hauek bere funtzioa bete zuten, eskolarik ez zegoen bailaretara iritsi baitziren.

1936an gerra hasi zenean bertan behera gelditu ziren. 1937ko ekainean Kontzertu Ekonomikoen deusestapenak mikeleteen desargerepena ekarri

## Bibliografia

- EZCURDIA, Luis: *Los cuerpos armados forales. Los miqueletes*. Zarautz. Icharopena. 1968.

- “El cuerpo de miqueletes”. *Realidad* 4, 1927ko apirilak 30, 15-18.